

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



**ENPLEGUAREN ETA
SUSPERTZE EKONOMIKOAREN
ALDEKO ESPARRU PROGRAMA 2017-2020**

EDUKIEN AURKIBIDEA

0. Laburpen exekutiboa	3
I. Enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren aldeko konpromiso sendoa	7
I.1. Ekonomia suspertzeko testuingurua	8
I.2. EAEn erronka eta aukera handiak sortzen dituen testuingurua	24
I.3. Gobernuaren konpromiso lehenetsia, enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren alde	30
II. Konpromisoa betetzea: Enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren aldeko esparru-programa 2017-2020	33
II.1. Herri-helburu handia, 2020rako	34
II.2. Hiru oinarrizko printzipio	36
II.3. Enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren aldeko Esparru Programa 2017-2020 sartzeari Euskadi 2020 testuinguru estrategikoan	41
II.4. Bi jardute-ardatz: enplegua eta suspertze ekonomikoa	46
II.4.1. Enplegua suspertzea: enplegu-plana	48
II.4.2. Suspertze ekonomikoa: 4i estrategia	72
II.5. Baliabide ekonomikoak	103
II.6. Aurreikusitako eragina	107
II.7. Konpromisoa labur azaltzeko hamar faktore giltzarri	111
II.8. Gobernamendu-eredua	113
Eranskinak	119
1. eranskina: Erreferentzia dokumentuak	120

EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO



ENPLEGUAREN ETA
SUSPERTZE EKONOMIKOAREN
ALDEKO ESPARRU PROGRAMA 2017-2020

0. LABURPEN EXEKUTIBOA




LABURPEN EXEKUTIBOA

EAEn, 2016an berreskuratu dugu 2008an hasi zen krisialdiaren aurretiko BPGd-a. BPGd berreskuratuta ere, ezin da ondorioztatu krisia amaitu denik: 2016. urtearen amaieran, EAEn 90.000 landun gutxiago zeuden, lanpostu baliokideei erreparatuta; eta langabezia-tasa % 12,5 zen. Horrek esan nahi du enpleguen % 10 ezabatu dela; hala eta guztiz ere, enplegu-tasa 2014tik aurrera igo egin da, 35.000 lanpostu baliokide sortu direlako. Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden pertsonen kopurua aztertuta, 2016. urtearen amaieran, EAEn 925.291 afiliatu zeuden; hau da, 2008ko uztailaren zenbatu ziren 982.935 afiliatu –historiako mailarik handiena– baino 57.644 afiliatu gutxiago.

Horrek erakusten duen bezala, enplegu-tasak etengabe igo arren, oraindik ez dira berreskuratu krisialdiaren aurretikoak; hortaz, Gobernuak oraindik ere lehentasuna ematen dio esparru-programa bat martxan jartzeari; zehazki, 2017-2020 aldiko esparru-programari. Bestela esanda, aurreko legealdian hasi zen enplegua sortzeko eta hazkundera bultzatzeko bidea are gehiago garatu eta sendotu behar da.

EAEn enplegu gehiago eta hobe, gizarte orekatuagoa, bizikidetzaren handiagoa eta autogobernu handiagoa eta hobe sortzeko akordioan –EAJ eta PSE alderdiek eta Eusko Jaurlaritzak sinatu zuten– jasota dago enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren aldeko konpromisoa, 2013ko irailean hasi zen estrategia bateratuaren jarraipen gisa. Gainera, lehendakariak berak inbestidurako hitzaldian adierazi zuen ekonomia eta enplegua suspertzea egungo legealdiko zutabeetako bat izango dela.

Legealdi honetan, beraz, funtsezkoa da erronka hau: ENPLEGU GEHIAGO ETA ENPLEGU HOBEA sortzea, ekonomia eta enplegua suspertzearen aldeko estrategia publiko-pribatu osoaren bitartez. Enplegua sortzeko helburu orokorra ezarrita, aldi berean landu behar dira kualitatiboagoak diren zenbait helburu espezifiko: esaterako, enplegua eskuratzeko aukerak berdinak, eta, bereziki, gazteen laneratzea sustatzea; enpleguen kalitatea berreskuratzea; eta pertsonen zein enpresei zerbitzuak eta aukerak eskaintzen dizkien euskal enplegu zerbitzua osatzea. Datu kuantitatiboak erreparatuta, bi helburu estrategiko lortu behar dira: batetik, langabezia-tasa % 10 baino txikiagoa izatea, 2020an; eta, beste alde batetik, 20.000 gazteri lan-aukera bat eskaintzea, 2017-2020 aldirako.



Esparru-programak izaera bateratzailea du. Herri-estrategia baten moduan antolatuta dago, eta bost plan estrategiko bidez garatu eta zehaztuko da:

- Enplegu-plana.
- Berrikuntza-plana (ZTBP 2020).
- Nazioartekotze Plana
- Industrializazio Plana.
- Inbertsio publikoko programa.

Plan horiek, gainera, 2020 aldirako Enpleguaren Euskal Estrategian zehaztutako gidalerro askoren garapen operatiboa bultzatzen dute. Estrategia hori herriko eragile sozialekin ados jarrita osatu zen, betiere ildo osagarriak – hala nola gure hezkuntza formala etengabe hobetzea (derrigorrezko hezkuntza, lanbide-heziketa eta unibertsitate-sistema)– landu beharra kontuan hartuta. Horrela, Enpleguaren Euskal Estrategiak (2020) bere ikuspegi orokorretik proposatzen dituen erronkei aurre egin ahalko diegu.

Bost plan horiek bi jardute-ardatz handitan egituratuta daude: hazkundea eta enplegua berreskuratzea, Enplegu Plan Estrategikoaren bidez; eta ekonomia suspertzea, 4i Estrategiaren bidez (inbertsioa, berrikuntza, nazioartekotzea eta industrializazioa).


2 JARDUTE-ARDATZ: ENPLEGUA ETA SUSPERTZE EKONOMIKOA

ENPLEGUA		SUSPERTZE EKONOMIKOA	
E.1	ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA	R.1	INBERTSIOA
E.2	EKINTZAILETZA SUSTATZEA		
E.3	GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA	R.2	BERRIKUNTZA
E.4	ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA		
E.5	LANERATZEKO PIZGARRIAK	R.3	NAZIOARTEKOTZEA
E.6	RENOVE BIRGAITZE-PROGRAMAK		
E.7	ENPLEGU PUBLIKOA	R.4	INDUSTRIALIZAZIOA
E.8	ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEA		
E.9	ENPLEGUAREN EUSKAL SISTEMA HOBETZEA		

Esparru-programaren aurrekontu-zuzkidura zenbatetsia 8.800 milioi eurokoa da, 2017-2020 aldirako.

	Zenbatekoa
I. Enplegu-plana	1.175 M €
II. Ekonomia suspertzeko planak	5.225 M €
Aurrekontu-baliabideak, guztira (I + II)	6.400 M €
Abalak	2.400 M €
Baliabideak, guztira	8.800 M €

Aurreikuspenen arabera, programak honako ondorio hauek izango ditu EAEko ekonomian: 45.000 enplegu piztea; 6.000 enpresa berriri laguntzea; 100 ikerkuntza-proiektu berri finantzatzea; 1.200 ETERi laguntzea, kanpoko merkatuetara zabal daitezen; 4.100 berrikuntza-prozesuri laguntzea; eta 20.000 euskal gazteri lan-aukera ematea.



EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO



ENPLEGUAREN ETA
SUSPERTZE EKONOMIKOAREN
ALDEKO ESPARRU PROGRAMA 2017-2020

I. ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO KONPROMISO SENDOA



I.1

EKONOMIA SUSPERTZEKO TESTUINGURUA

I.1.1 «NORMALTASUN BERRIA»REN EZAUGARRIAK

EAEn, 2016an berreskuratu dugu 2008an hasi zen krisialdiaren aurretiko BPGda. BPGd berreskuratuta ere, ezin da ondorioztatu krisia amaitu denik: 2016. urtearen amaieran, EAEn 90.000 landun gutxiago zeuden, lanpostu baliokideei erreparatuta; eta langabezia-tasa % 12,5 zen. Horrek esan nahi du enpleguen % 10 ezabatu dela; hala eta guztiz ere, enplegu-tasa 2014tik aurrera igo egin da, 35.000 lanpostu baliokide sortu direlako. Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden pertsonen kopurua aztertuta, 2016. urtearen amaieran, EAEn 925.291 afiliatu zeuden; hau da, 2008ko uztaietan zenbatu ziren 982.935 afiliatu –historiako mailarik handiena– baino 57.644 afiliatu gutxiago.

Horrek erakusten duen bezala, enplegu-tasak etengabe igo arren, oraindik ez dira berreskuratu krisialdiaren aurretikoak; hortaz, Gobernuak oraindik ere lehentasuna ematen dio esparru-programa bat martxan jartzeari; zehazki, 2017-2020 aldiko esparru-programari. Bestela esanda, aurreko legealdian hasi zen enplegua sortzeko eta hazkundera bultzatzeko bidea are gehiago garatu eta sendotu behar da.

Europako Batzordeak honela definitu du egoera berria: «hazkunde apala, erronkaz beteriko garai batean». Hori horrela, honelako hazkundera espero da eurogunean: 2016an, % 1,7koa; 2017an % 1,5ekoa; eta 2018an, berriro % 1,7koa. Zifrak ez dira oso handiak baina arriskuak ere bizkortu egin dira, hainbat faktore direla-eta: Brexit, Europako hauteskunde-prozesuak, Txinaren hazkunde-ereduaren aldaketa (barneko eskaerara bideratu izana, orekaren bila); edo, Estatu Batuetan hurrengo urteetan bultzatzen diren politikak protekzionistek eraginda, globalizazioan jaso daitekeen atzerapena.

Bestalde, ELGEk «hazkunde txikiko tranpa» aipatu du: horren arabera, inbertsioak eta nazioarteko merkatuek aurrerapen txikiak izango dituzte munduko ekonomian, giro protekzionistaren eta merkataritza-errepresaliaren eraginez uztertuta.

Testuinguru horretan, euskal ekonomiari buruzko aurreikuspenek diote jarduera ekonomikoen erritmoaren aurrerapenean desazelerazio leuna egongo dela. Zehatzago esanda, 2016an BPGdaren hazkundera % 3,1ekoa izan arren, 2017an % 2,3koa, eta 2020an % 2,0 ingurukoa izango da.

Produktibitateko tasa batzuk % 1 baino txikiagoak izanik ere, aurreikuspenek diote testuinguru horretan enpleguak gora egiten jarraituko duela, hazkundera azken urteetako baino txikiagoa izan arren. Beraz, langabezia-tasak pixkanaka egingo du behera, baina egoera horretan erabakigarria izango da biztanle aktiboen bilakaera. Izan ere, azken urteotan zehartze-prozesua gertatu da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta behera egin du biztanle aktiboen tasak; gainera, ez da litekeena joera hori aldatzea. Horrek euskal ekonomiaren balizko hazkundera muga dezake epe ertainera; hortaz, funtsezkoa da egoera hori kudeatzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen ekonomikoa suspertuko bada.

I.1.2 EGOERA EKONOMIKOAREN BILAKAERA


Hedatzea, atzera egitea eta suspertzea

1995etik 2007ra, EAEko ekonomiak erritmo bizian egin zuen gora, batez beste, % 4ko erritmoan; eta Estatu osoaren hazkundea ere antzekoa izan zen. Europar Batasunarena (% 2,5) eta gure merkataritza-bazkide nagusia, ordea, askoz ere txikiagoak izan ziren (Frantziarena, % 2,3; eta Alemaniarena, % 1,6). Horrez gain, epe berean, 290.000 lanpostu sortu ziren¹, % 3ko batez besteko erritmoan, urtean. Inbertsioa, BPGdaren gaineko kapital finkoaren osaera gisa neurtuta, % 21etik % 31ra handitu zen, aldi horretan.

Mendez aldatzean, lan-kostu txikiagoen abantaila eta, teknologia berriak ezarrita, ekoizpen-prozesuen efizientziaren hobekuntza agortzen ari ziren. Aldi berean, testuinguru globalizatu berrian industria-enpresak berrantolatzen ari ziren, eta horrek ekoizpen-jardueren deslokalizazioa bultzatu zuen, baita laguntza-jarduerak kanporatzea ere. Egoeraren aldaketa handi hori zela-eta, «euskal ekonomiaren bigarren eraldaketa» deiturikoa abian jarri zen. Horrela, ekoizpen-faktorez beteriko etapa atzean utzi, eta beste eredu bat ezarri zen: ezagutzak sortzean eta aplikatzean oinarritutako eredu lehiakorra.

Euskal industria-sektorearen hazkundea leuna izan zen, XXI. mendearen hasierako urteetan, 1995-2000 urte bitartekoan ez bezala (BPGd globala baino handiagoa izan zen, aldi horretan). Eraikuntzaren gorakada jarraituak luzatu zuen hazkunde-diferentziala, Europarekin erkatuta. Horretan kontuan hartu behar da Ekonomia eta Diru Batasunean (eurogunean) sartu izana, XX. mendearen amaieran, Maastricht Tratatuan ezarritako konbergentzia-eskakizunak bete ondoren. Horren ondorioz, interes-tasak biziki murriztu ziren, eta familien zorra are gehiago handitu zen, etxebizitzak erosteagatik. Halaber, etxebizitza-eskariaren gorakadan eragina izan zuten: batetik, familien gastu-ahalmenaren igoera indartsuak, enpleguaren gorakadari lotuta (batez ere gazteei dagokienez); eta, bestetik, espekulazioak.

1995-2015 BPGdaren bilakaera konparatua. Bolumen-indize kateatuta. Urte arteko aldaketa-tasak (%)



Iturria: Eurostat eta Eustat. Ekonomia-kontuak.

¹ Lanaldi osoko lanpostu baliokideak, urteko batezbestekoan, Eustaten Ekonomia-kontuetan ezarritakoaren arabera.


EAEko BPGd –2008an jaitzi eta % 1,3ko tasara heldu ondoren– % 6,9 uzurtu zen 2008tik 2013ra, baldintza errealetan. Horrela, industriako BEGd ere ia % 17 murriztu zen, eta eraikuntzako % 30 baino gehiago. Zerbitzuen sektoreak, ordea, ekarpen-mailari eutsi zion aldi horretan. Bestalde, inbertsioa 90eko hamarkadaren erdialdeko mailalara jaitzi zen; BPGdaren % 22, zehatz-mehatz.

2008ko atzeraldi handiaren eraginean ere intentsitate- eta erritmo-desberdintasunak behatu ziren, inguruko ekonomiekin erkatuta. Hori horrela, 2008tik 2013ra, EAEko BPGdaren batez besteko urteko tasa aldatu, eta -% 1,0 izan zen. Zifra hori Estatu osokoa baino hobeia izan zen (-% 1,4), baina EBko 28 estatuetakoa (-% 0,1), Frantziakoa (% 0,4) edo Alemaniakoa (% 0,7) baino askoz ere txikiagoa. Herrialde horietan 2011ko atzeraldaren bigarren fasearen eragina leunagoa izan zen, industriaren emaitzak hobeak izan zirelako, eta eraikuntza-sektorearen garrantzia txikiagoa izaten zelako.

Euskal Autonomia Erkidegoko suspertze-prozesua 2014an hasi zen; eta Europar Batasunean batez besteko erritmo bera erregistratu zen (-% 1,6). 2015ean bizkortu egin zen, % 2,9ra iritsi arte; euroguneko tasa (% 2) baino ia puntu bat handiagoa. Aldi berean, Frantzia (% 1,3) eta Alemanian (% 1,7) hazkunde neurritsuak gertatu ziren, eta Espainiako Estatuan % 3,2ra iritsi zen. Industria- eta zerbitzu-sektoreak susperraldiaren oinarriak izan dira. Bestalde, eraikuntzan 2015ean gelditu zen jardueraren beheraldia, eta % 0,5eko gorakada izan zuen.

Baldintza errealetan, BPGd-tasak 2016an lortu zuen 2008ko maila. Inbertsioa, ordea, BPGdaren % 22 inguru izan zen².

BPGdaren urte arteko aldaketak, eta eskaintzaren osagaiak, Euskadin (%). 1995-2015 aldiko bolumen-indize kateatuta



Iturria: Eustat. Ekonomia-kontuak.

² 2015. urteko datua.

EAEko ekonomian industriak nagusi izaten jarraitzea


Krisialdiaren aurretik, 1995etik 2007ra arte iragan ziren hamabi urteetako hedapen ekonomikoan, eraikuntzaren pisu erlatiboak 3 puntu baino gehiago egin zuen gora; izan ere, 2007an, BEGdaren % 10,6 izatera heldu zen. Industriaren parte-hartzea 2001a arte egonkorra izan zen, % 31 ingurukoa; baina 2007an, BEGdaren pisuaren % 28,6ra jaitsi zen.

Osotasunean hartuta, zerbitzuen sektoreak eutsi egin zion balio erantsiaren % 60ko tasari, era egonkorrean. Egonkortasun hori bi joera dibergenteren ondorioa izan zen. Batetik, ekonomiaren osotasunean, merkatuko zerbitzuen pisuak % 2 baino gehiago egin zuen gora; izan ere, BEGdaren % 43 hartu zuen, krisialdiaren aurreko urteetan. Beste alde batetik, merkatutakoez bestelako zerbitzuak BEGdaren % 17ra jaitsi ziren.

2008an krisialdia hasi zenetik, hirugarren sektorearen garrantzia bizkortu egin zen EAEko ekonomian. Zerbitzuen hazkundea gero eta handiagoa zen, eta zerbitzuek BEGdaren ia % 70 hartzen zuten; 2007an baino 9 puntu gehiago, zehatz-mehatz. Bai merkatuko zerbitzuek (beraien pisuak ia BEGd osoaren erdia hartzen zuten), bai merkatuari lotuta ez zeudenek gora egin zuten. Eraikuntzaren beherakada ia 4 puntukoa izan zen, BEGdaren % 6raino. Manufakturen garrantzia txikiagotu zen, eta EAEko industria-sektoreak 5 puntu egin zuen atzera. Gaur egun, BEGdaren % 24 ingurukoa da.

Beherakada hori izan bazuen ere, krisiaren ondorioz eratu zen EAEko ekoizpen-egitura eta Alemaniakoa antzekoagoak dira, Espainiako edo Frantziako egiturekin erkatuta. Industriaren garrantzi handia, oraindik ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren bereizgarri da. Industriaren pisua EB-28n eta eurogunean bainoa handiagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan. Zehazki, EAEko industriaren BEGdaren 2015eko tasa balio osoaren % 24 da: EBn % 19, eta Espainiako Estatuan, % 18. Hala ere, sektoreak Alemanian duen tasa baino bi puntutik beherakoa da.

EAEko BEGd osatzen duten sektoreen bilakaera, 1995-2015eko aldian (%)



Iturria: Eustat. Ekonomia-kontuak.


Industria-sektorearen garrantziak gora egin ahala, behera egin zuten zerbitzuek. Izan ere, 2015ean, hirugarren sektoreak EAEko BEGdaren % 69 hartzen zuen; Europar Batasunean eta Espainiako Estatuan, % 74 ingurukoa; eta Frantzia, % 79. Bestalde, sektore primarioaren pisua EBkoaren erdia da, eta Espainiako estatukoaren laurdena. Eraikuntzak, aldiz, BEGdaren % 6 hartzen du, Europako eta Espainiako estatuko tasatik gora (% 5,4).

EAEko ekonomian industriak behera eta zerbitzuek gora egin dutela adierazten duten zifrak ulertzeko, kontuan hartu behar da egitura aldatzen ari dela. Aldaketa horretan, industria eta zerbitzuak gero eta gehiago uztartu, eta haien arteko mugak ezabatzen ari dira industria-ekonomietan. Hori horrela, industriaren pisuaren atzerakada oso lotuta egon da enpresei zuzendutako zerbitzuak kanporatzeko prozesuarekin. Balio erantsi handiko zerbitzu profesionalak, industriaren produktibitateari lotuta, kanporatu dira, bereziki; bai eta ekonomia orokorrekoak ere (I+Gko jarduerak, diseinua, kontsultoretza, lege-jarduerak, kudeaketari buruzkoak, marketina, ingeniari- edo arkitektura-zerbitzu teknikoak, etab.).

Gainera, ondasunen ekoizpenetan gero eta garrantzitsuagoa da zerbitzuen eginkizuna. Horren harira, bizkortu egin da «zerbitzazio»ren goraldia (prozesu horretan enpresek produktuei zerbitzuak lotuz eranstean diete balioa produktuei). Produktua zerbitzuak saltzeko plataforma bilakatzen da, eta, aukera estrategikoen arabera, plataforma horren garrantzia ondasun fabrikatuarena baino askoz ere handiagoa izan daiteke, salmentei eta balio erantsiari dagokienez. Horrek berekin dakar negozioaren eredia aldatzea. Zehazki, lankidetzat handiagoa eskatzen du fabrikatzailearen eta bezeroen artean. Alderdi guztien artean, funtsezkoena da zerbitzu aurreratuaren espezializatu diren enpresek elkarlanean aritzea (ingeniaritza, kontsultoretza, IKTak eta abarrak eskaintzen dituzten enpresek). Enpresa horiek manufaktura-industriei lagunduko diete produktua bereizten eta arrakastaz lehiatzen.

EAEko ekonomia nabarmen eraberritu den arren, beraren profil tradizionala oraindik ere tradizional samarra da, eta zerbitzu aurreratuak ez daude oso garaturik. Herri aberats eta dinamikoenetan, ordea, zerbitzuen eginkizuna oso garrantzitsua da, ezinbestekoak baitira ezagutzen sorreran oinarritutako berrikuntzaren egoera lehiakor berrian ³.

BEGdaren osaera, sektoreen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Europan. 2015 (%)



Iturria: Eurostat eta Eustat. Ekonomia-kontuak.

³ Ikusi ["Euskadi entre las regiones avanzadas del Mundo. Juego de espejos para una guía de desarrollo". Ikerketak Ekonomiaz 2015/III.](#)

Ekonomia atzerrira ere zabaltzen da


EAEko ekonomia atzerrira ere zabaltzen da; eta era nabarmenean, gainera. EAEko merkataritza estatuko merkatuaren mende egon ohi da: esaterako, 1995etik 2010a arte, Espainiako estatura egin ziren ondasunen eta zerbitzuen esportazioek, batez beste, kanpora bidalitako salmenta guztien % 56 hartzen zuten; eta mundura egiten ziren gainerako esportazioek ordea % 44.

Ondasunen eta zerbitzuen eskualdeen arteko merkataritzaren mende egoteko joera hori 2011n aldatu zen. Nazioarteko salmentak bizkortu, eta Estatura bidalitakoak baino handiagoak izan ziren: guztizkoaren % 51, hain zuzen ere; eta, 2015ean, % 53 inguru.

Estatura egiten ziren esportazioen kuota BPGdaren % 40tik % 30era murriztu arren, nabarmenezkoa da Estatuko gainerako eskualdeetara bidalitako esportazioen merkatua hain handia izatea, eta ehuneko horrek eta nazioarteko merkatuarena ia berdina izatea. Bestalde, 2011tik aurrera, nazioarteko esportazioen balioek BPGdaren % 35 inguru hartu zuten. Inportazioei dagokienez, eskualdeen arteko merkataritzak BPGdaren 15 puntu gehiago hartu zituen, nazioarteko merkataritzarekin erkatuta.

Merkataritza-saldoren aldaketa ere garrantzitsua izan da: esportazioen beherakada dela-eta, Estatuko gainerako eskualdeekin sortutako saldoa oso defizitario bihurtu da (2015ean, BPGdaren % 11,2); aldi berean, hirugarren herrialdeekin erkatuta, igo egin da superabita (% 8,1, urte berean). Hori are nabarmenagoa da kontuan hartzen badugu atzerriko harremanetan faktura energetikoak duen pisu handia. Horren emaitza EAEko merkataritza-balantza defizitarioa da; 2015ean, BPGdaren % 3,1era iritsi zen, zehatz-mehatz. Dena den, ziklo gorakorren amaieran lortu ziren kopuru handienetatik eta atzeraldiko lehen fasetik –2006tik 2009ra, % 7ko merkataritza-defizitak jaso dira– murriztuz joan da zifra hori, eta % 3,1 izan da 2001etik jaso den balio txikiena.

EAEko ekonomia kanpora zabaltzea, 1995tik 2014a arte (BPGdaren %)



Iturria: Eustat. Ekonomia-kontuak.

Berrikuntza: ekonomiaren hazkundearen eta lehiakortasunaren bultzatzailea

2012an gasturik handiena egin zen I+Gn; % 2,06, hain zuzen ere. Handik aurrera murriztuz joan da. 2015ean, BGPdaren % 1,84ko gastua egin zen I+Gn⁴; Estatuko kuota gairitu arren (% 1,22), EB-28koa baino askoz ere txikiagoa izan zen (% 2,03). Bestalde, Suedia, Danimarka edo Austria herrialdeetako mailekin erkatuta, atzean geratu zen, herrialde horietan Europan ezarritako % 3ko helburua gairitu zutelako. Finlandian % 2,9ra egin zuten atzera, eta Alemanian, % 2,87ra. Finantziazio-iturriak honela banatu ziren: enpresek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak ikerketa-gastuaren % 55,9 finantzatu zuten; administrazio publikoek eta goi-mailako irakaskuntzak 36,3 eman zuten; eta atzerriko funtsek, % 7,8.


Enpresa berritzaileen kopurua % 16,5 izan zen, 2015ean. Bestalde, gutxienez 10 langile zituzten enpresen ehunekoa % 34,6 izan zen.

2012tik 2014a arte I+Gko barne-gastuak behera egiteko arrazoi nagusia haxe izan zen: administrazio publikoek eta enpresek ematen zuten finantziazioa murriztu izana. Administrazio publikoen kasuan, Estatuko Administrazio Orokorreko finantziazioa ere murriztu zen; beraz, horrek beherakada eragin zuen. Izan ere, azken bost urteotan (2010etik 2014a arte) % 61 murriztu da; zehazki, 170 milioi eurokoa izan zen 2010ean, eta 65 milioi eurokoa, 2014an.

Hori horrela, I+G+b arloko aurrekontu publikoak handiagoa izan behar du, bai eta arlo horretako inbertsio pribatuak ere. Horrela, EAEn indartuko dugu europar eskualde berritzaile gisa dugun posizioa. Ildo horretatik, 2017tik 2020ra, I+G+b arloko programa publikoetara bidalitako aurrekontu publikoaren % 5 handitzeko konpromisoa hartu du lehendakariak.

⁴ EUROSTAT-Estatistika Institutu Nazionalaren datuen arabera, EAEko I+G+b arloko gastuari buruzko adierazlea % 1,93 izan zen, 2015ean.

I+Gko gastuak EAEn eta Europan izan duen bilakaera, 2000tik 2015era



Iturria: Eurostat eta Eustat, I+Gko estatistika.

I.1.3 ENPLEGUA: EGIN BEHAR DEN BIDEA


Lanpostuak berriro sortzea

1993tik 2008a arte, 300.00 lanpostu garbi sortu ziren, era egonkorrean. Krisialdia zela-eta, hurrengo sei urteetan 105.000 lanpostu suntsitu ziren. Aldi berean, krisialdian gero eta handiagoa izan da emakumeen laneratzea. Hortaz, gizonezkoen beherakada bikoiztu egin zen, biztanleen zahartzeak ere bultzatuta. Bi faktore horiek konbinatuta, 2008. eta 2014. urte bitartean, 130.000 langabe gehiago erregistratu ziren, eta, guztira, 169.000 pertsona langabe zeuden.

2014tik aurrera ekonomia suspertzen hasi zen, eta 23.000 lanpostu garbi sortu dira. Gizonezko aktiboak drainatuta, langabeen kopurua 30.000 murriztu, eta, 2016an, 139.000 izan zen. Biztanle aktiboen kopurua 1.043.000 da; eta landunena, 903.000. EAEko pertsona aktiboen eta landunen % 47 emakumeak dira.

Erregistro-datuak erabiltzen baldin baditugu, 2016ko abenduan 925.291 pertsona afiliatuta zeuden Gizarte Segurantzari, batez beste. 2008an, ordea, afiliatuen kopurua 982.935 zen; horixe izan da krisialdiaren aurretiko baliorik handiena, hain zuzen ere. Horren arabera, oraindik ere, Gizarte Segurantzari 57.644 afiliatu gehiago behar dira, maila horretara iristeko.

EAEko lan-merkatuaren bilakaera, 1985etik 2016a arte (milako pertsonatan, eta urteko batezbestekoa)




Iturria: Eustat, BJA.

20 eta 64 urte arteko landunen tasa bigarren aldiz igo zen 2015ean, % 67,7 izan arte. Tasa hori Estatukoa baino 5,7 puntu handiagoa da, krisialdiaren aurretiko mailak (2008an, % 71) oraindik lortu ez badira ere, eta europar batezbestekotik behera egon arren (% 70,1). Krisialdiak eragin duen landunen tasaren beherakada gizonezkoen artean gertatu da, batik bat: ia 10 puntu, 2008tik 2013a arte. Emakumezko langileen tasa ez zen murriztu, eta dagoeneko 2008ko tasa baino bi puntu handiagoa da; % 63,9, zehatz-mehatz. Europar Batasun osoan portaera bera erregistratu da. Izan ere, tasa horrekin parekatzen da, Espainiako tasa baino 7,5 puntu handiagoa baita. EAEko emakumezko eta gizonezko landunen arteko arraila murriztuz joan da azken 15 urteotan. Aldeak 30 puntukoak izatetik 7,5 izatera aldatu dira, 2015ean.


Sektoreen arabera, 2008tik 65.000 lanpostu inguru ezabatu dira industrian; eraikuntzan, 46.000 lanpostu; hurrenez hurren, % 26ko eta % 46ko murrizketa. Bestalde, sektore primarioan % 30 baino gehiago murriztu da enplegua, 1990eko hamarkadaren erdialdetik; izan ere, azken urteotan, 13.000 lanpostu baino gutxiago zenbatu dira. Zerbitzuetan, aldiz, 2015ean erregistratu zen kuotarik handiena, 634.000.

20-64 urte arteko biztanle landunen tasaren bilakaera, 1995etik 2015a arte



Iturria: Eurostat eta Eustat, BJA.



Landunen tasa (20 eta 64 urte bitartekoen artean), EAEn, sexuen arabera, 1995etik 2015a arte



Iturria: Eurostat eta Eustat, BJA.

Sektoreen arabera ibilbideak batera aztertzen baldin badira, 2015ean, enpleguaren % 71,8 zerbitzuetan bildu zen; industrian, % 20,5; eraikuntzan, % 6,3; eta sektore primarioan, % 1,4.


Enpleguaren sektoreen arabera banaketa, EAEn.
Langaldi osoko lanpostu parekideak, urteko batezbestekoaren arabera



Iturria: Eustat. Ekonomia-kontuak.

Langabezia-tasa % 25 izan zen 1994an, eta 2007an, ordea, egitura-langabeziaren mailara jaitsi zen (% 3,3). Gure inguruko mailak, ordea, oso bestelakoak izan ziren. Krisialdia zela-eta, tasak % 16 baino handiagoak izan ziren, 2014an (% 16 izan zen baliorik handiena, 1998. urteaz geroztik). Susperraldia finkatu ondoren, langabezia-tasa % 13,4koa izan zen, 2016an (zehazki, % 12,5, IV. hiruhilekoan). Estatuko tasa baino askoz ere txikiagoa izan zen (2015ean, % 22,1), baina Europakoa baino handiagoa (2015ean, % 9,4). Emakumeen ehunekoa gizonezkoena baino hiru hamarren handiagoa da (% 13,5); lehenengo aldiz, 2008an krisialdia hasi eta gero. Adinen arabera, 25 urtetik beherako langabeen tasa oraindik ere % 29 da (% 25, IV. hiruhilekoan). Tasa handia bada ere, Estatukoa baino askoz ere txikiagoa da.

16 urteko eta urte gehiagoko biztanle langabeen tasaren bilakaera, EAEn, 1985etik 2016a arte (urteko batezbestekoa)




Iturria: Eustat, BJA.

Kontratuen behin-behinekotasuna


Behin-behinekotasuna oraindik ere EAEko lan-merkatuaren ezaugarri txarrenetakoa da. 2009. urtean % 18,6 izan zen aldi baterako kontratua zeukaten soldatapeko langileen ehunekoa; 2014an, ordea, % 24. Urte horretan bi puntutik gora handitu zen, ekonomia suspertzeko lehenengo itxaropenak agertu zirenean. Hori horrela, EAEko lanaren behin-behinekotasuna Europakoa baino hamar puntu handiagoa izan zen, berriro. Harrezkero, egonkor jarraitu du, % 14 inguruan. Estatuan balio bera erregistratu da, lan-lege berak ere ditugulako. Sexuen arabera behin-behinekotasunaren tasa ehuneko 4,3 da, eta behin-behinekotasuna handiagoa da emakumeen artean.

Lan-ezegonkortasunak gehiago eragiten die gazteei; horregatik, askotan, geroago emantzipatzen dira, familia-ardurak eta zorpetzeko erabakiak geroago hartzen dituzte, eta beraien soldatak txikiagoak izaten dira.

Behin-behinekotasunaren bilakaera, 1985etik 2016a arte (aldi baterako kontratua duten pertsonak/soldatapeko pertsonak)



EAEko lanaren behin-behinekotasuna, sexuen arabera, 1985etik 2016a arte (kontratudun pertsonak/soldatapeko pertsonak)



Iturria: Eurostat eta Eustat, BJA.

Zahartzearen eragina, biztanle aktiboengan

Etorkinen fluxu handiak bultzatuta, hazkundera hamaika urtean etengabe igo arren, EAEko biztanleriaren tasak historian izan duen kopururik handiena bereganatu zuen: 2012an, 2.181.590 egoiliar metatu ziren. Hurrengo urteetan, saldo natural negatiboak erregistratu ziren, berrito, eta, 2016an, 2.172.000 biztanle zenbatu ziren⁵.

Azken 15 urteotan, biztanleen tasak % 4,5 egin du gora, eta nabarmentzekoa da 65 urtetik gorako pertsonen kopuruaren gorakada (% 24,5), haien pisua hiru puntutik gora handituta. Bestalde, biztanle aktiboak erdiko adinekoen taldean (20 eta 64 urte bitartekoan) biltzen dira, batik bat. Talde horrek % 2 egin du behera, eta banaketa osoan duen pisuan 4 puntu galdu ditu.

Epe ertaineko dinamika demografikoak joera hori indartu du: eskola-adineko biztanleen kopuruak behera egin du; aktibo egon daitezkeen biztanleak zahartu dira; eta adineko biztanleen kopurua nabarmen handitu da. Gainzahartzeko prozesua azken horien artean areagotuko da, eta horrek eragin handi samarra izango du jardueraren bilakaeran, osasun-gastuan eta gizarte-zerbitzuetako gastuan.

Eurostatek Europari buruz erregistratu dituen azken proiektzio demografikoen arabera, 65 urtetik gorako biztanleen ehunekoa % 18,4tik % 20,5era igoko da, 2020rako. Espainian, 2013an, 65 urtetik gorako pertsonen ehunekoa % 17,9 izanik, % 20,1 izan liteke, 2020an. Euskal Autonomia Erkidegoan, zahartze-prozesu hori akutuagoa izaten ari da; izan ere, adineko pertsonen ehunekoa 2016an jada % 21 zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria-egituraren bilakaera. 2001-2016

	0-19		20-64		≥65		Biztanleria
	(milakoak)	%	(milakoak)	%	(milakoak)	%	(milakoak)
2001	364,0	17,5	1.341,5	64,5	373,7	18,0	2.079,2
2011	378,3	17,4	1.371,5	63,1	424,3	19,5	2.174,0
2016	396,0	18,2	1.310,7	60,4	465,2	21,4	2.171,9

Iturria: Eustat, biztanleen udal estatistika.

⁵ Biztanleria-tasa urtarillaren 1ean, Eustatek egin duen biztanleen udal estatistikaren arabera.

Ekonomia plangintzaren arabera bilakatu da, eta % 2 inguruko hazkundeak erregistratu dira. Produktibitatea % 1 baino txikiagoa izan da. Horren arabera, baliteke enplegu-premiekin lan-eskaintza zaharrari eta, lanik gabeko kolektiboa murriztuta, gero eta txikiagoari lotutako mugak topatzea. Horren harira aipatzeko da 2016. urtearen amaieran 129.000 langabe zenbatu zirela, eta zifra horretatik langabezia teknikoa kendu behar zela.

Espero den hazkunde ekonomikoak bultzatutako enplegu-premiekin batera, kontuan hartu behar dira biztanle landunak berriz kokatu beharrak. Esparru-programa garatu bitartean lan-indarretik aterako diren enplegatuak ordeztzea prozesu garrantzitsua izango da. 2011ko errolda abiapuntutzat hartuta egin diren zenbatespenen arabera, 2016-2020ko aldian berriz esleitu beharko diren lanpostuen kopurua 77.000 izango da, eta nabarmen bizkortu da, denbora igaro ahala. Hedapenaren ziozko eskaria baino handiagoa izango da erretiroarengatik merkatutik irtengo den lan-indarraren ordezkapena. Lanpostuak berriz antolatu beharra ezin da automatikotzat hartu, teknologia- eta antolaketa-aldaketen mende egongo da, baizik.

Ekonomian botila-lepo hori osatuta, bi alderdi jorra daitezke:

- Emakumezkoen jarduera-tasak azken urteotan handitu diren arren, oraindik ere gizonezkoen tasak baino 8 puntu txikiagoak dira, oraindik ere. Hori dela-eta, emakumeen laneratzea erabakigarria da, sistema ekonomikoaren engranajea behar diren langileak edukitzeko.
- Demografiaren iraganeko bilakaerak erakusten du migrazio-fluxuek ekonomiaren lan-esku-premiei erantzuten dietelako. Hori dela-eta, pertsonak erakartzeko plangintza «adimenduna» behar da, gure sare produktiboaren premien arabera.


Giza kapitalaren maila handiko prestakuntza

EAEko biztanleek prestakuntza daukate, eta oso ona, gainera. Eskola goizegi uzteko tasa txikia da (EAEn, % 7,2; EB-28n, ordea, % 11, batez beste; Espainiako estatuan, % 20). Goi-mailako ikasketak dituzten biztanleen ehunekoa handia da (% 48,9; EB-28n, ordea, % 38,7 da; eta Espainiako Estatuan, % 40,9)⁶. Datu horiek erkatuta, EAEko emaitzak hobeak izateaz gain, EB osorako jarri diren helburuak ere gainditzen dituzte (zehazki, % 10 baino txikiagoa eta % 40 baino handiagoa, hurrenez hurren).

Gainera, 2000. urtetik aurrera, erdi mailako ikasketak dituzten biztanle aktiboen kopurua baino handiagoa da goi-mailako ikasketak dituztenena. Alde hori zortzi puntukoa izan zen 2013an, % 51,7k goi-mailako ikasketak zituztelako.

Bestalde, hirugarren mailako hezkuntza-maila horren aldaketa handia eta gorakorra, batetik, eta lan-indarraren gainkualifikazioa, bestetik, hausnartu behar dira hezkuntza-inbertsioaren ikuspegitik eta, oro har, prestakuntza merkatuaren gaur egungo eta etorkizuneko premiei egokitu beharren ikuspegitik. Horrez gain, teknologiaren eta antolaketaren eraberritzeak eskatzen dituen prestakuntza-aldaketak ere aurreikusi behar dira.

Biztanle gazteen prestakuntza-maila, 1980-2013



Iturria: IVIE. Giza kapitalaren segidak, autonomia-erkidegoen arabera. Urtarrila, 2014. (2013ko II. hiruhilekoa).

⁶ Euskadiko 2014ko datuak; eta EBko eta Espainiako Estatuko 2015eko datuak.

I.2

EAEn ERRONKA ETA AUKERA HANDIAK SORTZEN DITUEN TESTUINGURUA

I.2.1 EAEn ERRONKA ETA AUKERA HANDIAK SORTZEN DITUEN TESTUINGURUA

Datozen lau urteotako ekintza politikoak ziurgabetasuneko testuinguru globalean garatu beharko ditugu; izan ere, ekonomiaren egoera sozial eta politikoa oso konplexua da.

Gaur egun, aldaketa handiak gertatzen ari dira gizartean eta ekonomian. Globalizazioa, informazio- eta komunikazio-teknologiak eta beste aurrerapen teknologiko batzuk gure gizartearen eta ekonomiaren eredu tradizionala eraldatzen ari dira.

Komunikatzeko, lekualdatzeko eta ondasunak zein zerbitzuak ekoizteko moduak aldatzen ari dira. Industriak desagertu, eta beste sektore batzuek gora egiten dute. Aldi berean, ezagutza eta gaitasun berriak eskatzen dituzten lan-eredu berriak ere sortzen ari dira. Krisialdia ez ezik, garai berri batean gaude, eta aurreko errezetak jada ez dira baliagarriak.


Europa egoera horren erdialdean dago. Ekialdeko herrien arteko tentsioak, Ekialde Ertaineko guda islamikoak, nazioarteko terrorismoak, iheslarien krisiak edota Brexit deiturikoak erronka ezartzen diote Europa eraikitzeke asmoari.

Lan-esparru estrategikoa ezarri behar da, EAEn etorkizunean izango ditugun erronkei arrakastez aurre egiteko, susperraldi ekonomikoak aurrera egiten jarraitzeko eta enpleguaren bultzada ez eteteko; horrela, hazkunde iraunkorra, adimenduna eta pertsonen garapena bermatuko dugu 2020rako.

Etorkizunari arrakastaz aurre egingo badiogu, EAEko susperraldi ekonomikoan eta enpleguan erabakigarriak izango diren faktoreak edo elementuak ezagutu, eta berez dakartzaten erronkak zehaztu beharko ditugu, xedeak lortzeko zer helburu eta estrategia behar ditugun zehaztu ahal izateko.

I.2.2 KONTUAN HARTZEKO FAKTOREAK, EKONOMIAREN ETA ENPLEGUAREN SUSPERRALDIAN ERAGINA IZAN DEZAKETELAKO

Zahartze demografikoak, munduaren osaera geopolitiko berriak, klimaren aldaketak edo teknologia gure gizartean sartzeko moduak, besteak beste, **eragin** erabakigarria izango dute gure jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren garapenean.



EAEKO FAKTORE GLOBALAK

GEOPOLITIKA ETA GEOEKONOMIA

Europar identitate-krisi sakona sortu da; aldi berean, biztanleen zahartzea aurrera doa eta Bigarren Mundu Gerraren ostean garatu zen gizartearen ongizateari eusteko aukera zalantzan jartzen ari da. Txina eta Asiako kontinente osoa, ordea, pauso erraldoiak ematen ari dira munduko ekonomian posizio lehiakorra bereganatzeko.

Europa zaharrak I+G+b arloaren aldeko apustua egiten jarraitzen baldin badu, nolabaiteko posizio eraginkorra edukiko du, baina ez du berreskuratuko XIX. eta XX. mendeetako posizioa.

Litekeena da globalizazioaren gorakada, bai eta balio-kateko jarduera batzuen deslokalizazioa ere, hainbat sektoreri lotuta. Ingelesa mundu globaleko hizkuntza gisa finkatu da.

GARAPEN TEKNOLOGIKOA

Une gorenean dauden teknologiak benetako iraultza egiten ari dira. Horren ondorioz, sakon aldatzen ari da gure gizartea: esaterako, komunikatzeko eta harremanak izateko moduetan edo erosteko ohituretan. Horrek ere eragina izango du jarduera ekonomikoan, baita enpresen arteko harremanetan ere.

Gaur egun, eztabaida handia dago «laugarren iraultza industrial»ak enpleguan izango duen eraginari buruz. Agerikoa da, prestakuntza txikiagoa eskatzen duten enplegu batzuk ezabatu ahala, beste batzuk sortuko direla, baina eragin garbia eta aldaketak sortzeko erritmoa nolakoak izango diren jakiteko dago.

SORTZEN ARI DIREN MERKATU BERRIAK

Datozen urteetan, dagoneko hazkunde esanguratsuak izan dituzten sektore batzuk finkatu eta garatuko dira, merkataritza elektronikoarekin batera. Haietako batzuk «ekonomia berde»ari edo «ekonomia zirkular»rari lotuta egongo dira. Beste batzuek bizitzaren kalitatearen gorakadarekin zerikusia izango dute. Bizi-kalitatea, batez ere, garapen-bidean dauden ekonomietan izango da esanguratsua. Turismo sektorearen kasua da hori, BPGdaren % 9 hartzen baitu. Espero da urtean batez beste % 3,3 igotzea, 2030a arte.

GIZARTE-JOERAK ETA -OHITURAK

Joera sozial eta kulturalen eraginez, hurrengo hamarkadetan nabarmen aldatuko da bizimodua. Premia eta aukera berriak sortuko dira, negozioetarako eta enplegua sortzeko.

Joera batzuk dira, besteak beste, bizi osasungarria izatea, estetika zaintzea, gizartea eta ekologia kontuan hartzea, indibidualismoak gora egitea, kulturaz edo aisialdiko jardueraz gehiago interesatzea...

AURRERAPEN GLOBALAK, INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNEAN

Klimaren aldaketari buruzko arazoei garrantzi handiagoa emango zaie; hortaz, ohiko ekonomiaren eredua aldatzeko erronkari aurre egingo bazaio, plangintza berriak garatu beharko dira: ekoizpen- eta kontsumo-eredu bat ezarri beharko da, irizpide ekologikoetan eta garapen jasangarrian gehiago oinarrituta.

Ekonomia ekologikoa garatzea behartzat har daiteke, baina aukera ere izan daiteke, gizartearen kontzientziazioan eskari leiala eta fidagarria osatuko delako. Ikerketetan aurrera egin ahala, energia garbiak ohiko iturri energetikoekin lehiatu ahalko dira. Horren ondorioz, hainbat aldaketa sortuko dira, bai industria-arloan, bai bizitegien arloan; eta bereziki nabarituko da nazioarteko metropoli handietan.

ENPRESA-ANTOLAKUNTZAREN ETA -LANKIDETZAREN EREDU BERRIA

Inguruko aldaketa horiek enpresetan ere eragina izango dute. Enpresak malgutasun handiagoz antolatu beharko dira, merkatu aldakorren aukerak erabiltzeko.

Talentuak pisu erlatiboa bereganatuko du, lehiakortasuna lortzeko tresna gisa. Erakundeek, ordea, ahaleginak bikoiztuko dituzte, talenturik hobea erakartzeko eta kontserbatzeko.

Lankidetzaren enpresen faktore erabakigarria izango da, arrakasta lortzeko, bai kanpoko lankidetzaren (beste enpresa batzuekin), bai enpresen barneko lankidetzaren. Lan-harremanetan helburu partekatuak eta barneko gardentasuna bereziki garrantzitsuak izango dira, lehiakortasuna hobetzeko.

EAEKO FAKTORE ESPEZIFIKOAK

ZAHARTZEA

Gizartearen zahartzeari lotutako arazoak ia Europa osoan gertatzen ari dira, bai eta beste herrialde garatu batzuetan ere. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoan bereziki larria da.

Bizi-itxaropenaren tasa munduko tasarik handiena da, eta jaiotze-tasa, ordea, txikienetakoa. Hortaz, zahartze-egoera horrek enplegu-aukerak sortuko ditu, eta, aldi berean, gure ongizatearen egoeraren jasagarritasuna zalantzan jarriko du. Konponbide emateko, baliteke gastu publikoaren antolaketa eraberritu behar izatea: esaterako, inbertsioak egiteko eta ekonomia suspertzeko gastua murriztea. Eta lan-merkatuan ere eragina izan dezake: talentua erakartzeari garrantzi berezia eman beharko zaio, biztanle aktiboen balizko defizita konpentsatu ahal izateko.

KRISIALDITIK IRTETEKO ERRITMOA

Agerikoa da azken krisialditik aterako garela, baina erritmoa ez dago hain ziurtaturik. 2015ean EAEko BPGdaren hazkundea oso handia izan zen (+% 2,8), eta 2016an ere bai (+% 3,1, urteko batez beste). Ehuneko horiei, aldiz, ez zaie erraz eutsiko. Bultzada hori, hein handi batean, kanpoko ezohiko faktoreek eragin zuten (adibidez, petrolioaren beherakada), eta hurrengo aldietan ez dira berriz gertatuko, edo behintzat ez horren indartsu.

EUROPAR BATASUNAREN ETORKIZUNA

Azken garaiko krisialdiak agerian utzi ditu Europako ekonomiaren egiturazko ahuleziak. Gainera, azkar kaltetu ditu ingurune ekonomikoa eta soziala; horrekin batera, Europaren eraikuntzan ere eragina izan du, duda barik.

Alde batetik, Europa 2020 Estrategian asmo handiko helburuak ezarri ziren, baina Europar Batasuneko estatu kide eta eskualde asko oso urrun daude helburu horiek betetzetik. Beste alde batetik, Europaren geroa jokoan jartzen duten hainbat fronte sortu dira: Erresuma Batuen irteera (Brexit), Greziaren egoera, populismoaren gorakada hainbat herrialdetan...

Hori guztia dela eta, joera eszeptikoa sortzen ari da, Europari dagokionez. Hortaz, neurri berriak ezarri beharko dira, Europa eraikitzeke proiektuak herritarrei berriro ilusioa piztu ahal izateko. Euskal Autonomia Erkidegoan erabakigarria da prozesu hori, eta neurri horiek eragina izan dezakete prozesu horretan.

I.3

GOBERNUAREN KONPROMISO LEHENETSIA, ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDE

EKONOMIA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEKO KONPROMISO POLITIKOA

EAEEn enplegu gehiago eta hobe, gizarte orekatuagoa, bizikidetza handiagoa eta autogobernu handiagoa eta hobe sortzeko akordioan –EAJ eta PSE alderdiek eta Eusko Jaurlaritzak sinatu zuten– jasota dago enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren aldeko konpromisoa, 2013ko irailean hasi zen estrategia bateratuaren jarraipen gisa.

***Enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren aldeko esparru-programa** 2017ko lehen seihilekoan onartzea.
Helburua langabezia-tasak legealdia bukatu aurretik % 10etik behera jaitea izango da*.*

Enpleguaren aldeko apustu sendoa egitea...

*Esparru-programan **enplegu-plan espezifiko bat** jasoko da, eta neurriak ezarriko dira **gazteen laneratzea** bultzatzeko, **emakumeak ekonomia- eta lan-jardueretan guztiz integratzeko**, **tokiko eta eskualdeko enplegu-planen** bitartez lan-aukerak bultzatzeko, **ETEEi eta autonomoei** laguntza emateko, **tokiko merkataritza** sendotzeko eta eraikuntza arloko **Renove programa** bereziki trinkoen bidez enplegua sortzeko*.*

Eta ekonomia ere suspertzea...

*Horrez gain, esparru-programan **ekonomia suspertzeko planak** ere jasoko dira; **zehazki, inbertsioaren, berrikuntzaren, nazioartekotzearen eta garapen industrial eta energetikoaren arloetan**.**

(*) EAJ eta PSE-EE-PSOE alderdiek egin zuten akordioa, 2016ko azaroaren 22an.

LEHENDAKARIAREN INBESTIDURA-HITZALDIAN LEHENETSITAKO KONPROMISOA

Lehendakariak berak inbestidurako hitzaldian adierazi zuen ekonomia eta enplegua suspertzea egungo legealdiko zutabeetako bat izango zela.

Gaur, ganbera honen aurrean, hiru konpromiso pragmatiko aurkeztuko dizkizuet, legealdi honetan betetzeko...

Lehen konpromisoa

Enplegua eta Ekonomia suspertzeko 2020 esparru-programa onartzea da. Horrela jarraipena emango diogu 2013ko irailean hasi zen estrategiari.

*Enplegua eta ekonomia suspertzeko esparru-programa **gure lehentasun nagusia** da, eta 8.500 milioi euroko zuzkidura esleitzeko konpromisoa hartzen dugu, 2020. urterako.*

*Iñigo Urkullu lehendakariaren inbestidura-hitzaldia
(Eusko Legebiltzarra, 2016ko azaroaren 23a)*

Esparru-programa gida da, **egungo legealdiko helburu nagusia** erdiesteko:

Langabezia % 10etik jaistea eta kontratazio-baldintzak hobetzea.

Horixe da politika publikoen iraunkortasuna bermatzeko bidea. Izan ere, ezinbesteko aktiboa da, ingurune ekonomikoan konfiantza sortzeko eta inbertsioa Euskadin sustatzeko.

*Iñigo Urkullu lehendakariaren inbestidura-hitzaldia
(Eusko Legebiltzarra, 2016ko azaroaren 23a)*

EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO



ENPLEGUAREN ETA
SUSPERTZE EKONOMIKOAREN
ALDEKO ESPARRU PROGRAMA 2017-2020

II. KONPROMISOA BETETZEA: ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU-PROGRAMA 2017-2020 **EUSKADI 2020**




II.1

HERRI-HELBURU HANDIA, 2020RAKO

II.1. HERRI-HELBURU HANDIA, 2020RAKO

Egungo legealdian **ENPLEGU GEHIAGO ETA HOBEA** sortzeko funtsezko erronkari aurre egin behar zaio.



Hauxe da galdera: NOLA handi daitezke aldi berean enplegua eta enpleguaren kalitatea?

Hauxe da gure erantzuna: enpleguaren aldeko **estrategia publiko-pribatu globala garatzea, enplegua eta ekonomia suspertzeko**.

II.2

3 OINARRIZKO PRINTZPIO

II.2. 3 OINARRIZKO PRINTZPIO

Enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren aldeko esparru-programa 2017-2020 **funtsezko hiru printzipiotan oinarritzen da:**



1. ENPLEGUA SORTZEKO ESTRATEGIA

2017-2020 Enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren aldeko esparru-programaren xede nagusia enplegua era iraunkorrean sortzea da. Duda barik, euskal herritarren behar eta ardura nagusia da.

Enplegua sortzeko helburu orokor hori ezarrita, garrantzitsua da helburu espezifiko kualitatiboagoak aldi berean jorratzea:

- Laneratzeko aukera berdinak eta, bereziki, gazteen laneratzeko sustatzea.
- Enpleguaren kalitatea berreskuratzea.
- Enpleguaren Euskal Zerbitzua osatzea, eta zerbitzuak eta aukerak pertsonei eta enpresei eskaintzea.



2. EUROPAREKIN LERROKATUTAKO ESTRATEGIA

EAEko suspertze ekonomikoa oso lotuta dago europar ekonomiarekin eta politikarekin. Ekonomiaren ikuspegitik, gure esportazioak Europar Batasunera egiten dira, eta bertatik etortzen dira inportazioak. Politikaren ikuspegitik, nazioko eta eskualdeko politikak europar politikekin lerrokatu eta koordinatu behar dira, European integratzeko prozesua gauzatu ahal izateko. Hori guztia dela-eta, Enplegua eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru-programa bat dator europar programa eta estrategia batzuekin. Hona hemen programak eta estrategiak:

EUROPA 2020 ESTRATEGIA

Europa 2020 Estrategia da epe luzerako hiru erronka handiri aurre egin behar dien europar ekonomian krisiak nabarmenarazi dituen egiturazko ahulguneei emandako erantzuna. Hauek dira erronkak: globalizazioa, baliabideen gainera presioa eta zahartzea.

Europa 2020 estrategian Europako merkatuko gizarte-ekonomiari buruzko ikuspegia jasota dago. Krisialditik indarberrituta ateratzeko eta EBko ekonomia adimendun, iraunkor eta integratzaile bihurtzeko estrategia proposatzen du, enplegu-, produktibitate eta gizartearen kohesio-maila handiak ezarrita. Horretarako, Europa 2020 ikuspegiaren hiru lehentasun ezarrita daude, elkarren sendogarri:

- **HAZKUNDE ADIMENDUNA:** jakintzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia garatzea.
- **HAZKUNDE IRAUNKORRA:** baliabideak modu eraginkorragoan erabiliko dituen ekonomia sustatzea, ekologikoagoa eta lehiakorragoa.
- **HAZKUNDE BATERATZAILEA:** enplegu-maila handiko ekonomia sustatzea, gizarte- eta lurralde-kohesioa dituen.

Lehentasun horiek betetzeko, Batzordeak, besteak beste, haxe proposatu zuen: I+G+b arloan Horizon 2020 programaren bidez aurrera egitea eta enpresa ertainen eta txikien lehiakortasuna COSME europar programaren bidez hobetzea.

EUROPAR BATASUNeko IKERKUNTZA- ETA BERRIKUNTZA-ESPARRU PROGRAMA. HORIZON 2020

Horizon 2020 ikerkuntza- eta berrikuntza-programa da; Europar Batasunak martxan jarri duen asmo handienetako bat, hain zuzen ere. Horren eraginez, aurrerapen, aurkikuntza eta emaitza gehiago sortzea espero da. Horrela, laborategietatik ateratzen diren ideiak merkatu-produktu bihurtuko dira, zentzuzko espezializaziorako RIS3 estrategiaren bidez.


ENPRESEN ETA ENPRESA ERTAINEN ETA TXIKIEN LEHIAKORTASUNA SUSTATZEKO PROGRAMA (COSME)

COSME programa EBkoa da, eta enpresen eta ETEen lehiakortasuna sustatzeko sortu da. Bai ekintzaileei, bai enpresa ertainei eta txikiei laguntzen die jarduten, finantziakzioa lortzen eta nazioartera ateratzen. Horrez gain, agintariei laguntzen die enpresen ingurunea hobetzen eta Europar Batasunaren hazkunde ekonomikoa areagotzen.

3. EUSKAL GIZARTEAREKIN PARTEKATUTAKO ESTRATEGIA BAT

Enplegua eta ekonomia suspertzeak herri-helburu izan behar du, herritar guztiak partekatuta. Hori dela eta, «helize laukoitz»eko kide guztiek partekatu behar dute horretarako estrategia:

- **Enpresek**, estrategiaren elementu nagusia izan behar dute, jarduera ekonomikoaren aktore nagusiak direlako.
- Hots, «**administrazio publiko**» guztiek, eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek partekatu behar dute, tokiko eragileekin batera.
- Eragile zientifiko-teknologikoak, ezagutzeekin, I+G+b arloarekin eta ekonomia- eta enpresa-garapenarekin lotuta.
- **Gizarte zibileko beste eragile batzuk**, enpleguarekin, ekonomiaren garapenarekin eta herritar guztiak lotuta.



II.3


ENPLEGUA ETA EKONOMIA SUSPERTZEKO ESPARRU-PROGRAMA 2017-2020 TXERTATZEA EUSKADI 2020 TESTUINGURU ESTRATEGIKOAN

EUSKADI 2020 PLANGINTZA ESTRATEGIKOAN SARTUTA DAGO ESPARRU-PROGRAMA

Gobernuak XI. legealdian egingo dituen ekintzak 15 plan estrategikoren bidez egituratuko dira. Lehendakariak ezarritako helburu estrategikoei erantzuteko planak dira, eta «Europa 2020 Estrategia»rekin lerrokatuta daude. Plangintza horrek giza garapena, hazkunde ekonomikoa eta hazkunde adimenduna bultzatzen ditu EAEn. Planak ere lerrokatuta daude Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako helburuekin (bost dira): People; Prosperity; Peace; Planet eta Partnership.

2017-2020 aldirako Enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren aldeko esparru-programak bat egiten du Gobernuak legealdi honetarako onartu dituen plan estrategikoen programarekin. Jardute integratzailea planteatu da, eta bertan txertatzen dira datozen urteetan enpleguaren eta, orokorrean, ekonomia-jardueren arloetan garatuko diren politikak.

EUSKADI 2020 PLANGINTZA ESTRATEGIKOA




HERRI-ESTRATEGIA DA, ETA GUZTIZ LERROKATUTA DAGO HAZKUNDEA ETA ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEN DITUZTEN BESTE ESTRATEGIA BATZUEKIN

2017-2020 Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programa «EAEn enplegu gehiago eta hobe» eraikitzeko estrategia da, Euskadi 2020 testuinguru estrategikoan hazkundea eta enpleguaren sorrera sustatzen dituzten gainerako estrategiekin erabat lerrokatuta.

Esparru-programak **izaera bateratzailea du. Herri-estrategia baten moduan antolatuta dago, eta bost plan estrategiko bidez garatu eta zehaztuko da:**

- Enplegu-plana.
- Berrikuntza-plana (ZTBP 2020).
- Nazioartekotze Plana.
- Industrializazio Plana.
- Inbertsio publikoko programa.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Planean ezarritako neurriak ere esparru-programaren enpleguari buruzko ardatzean jasoko dira, enpresen sarea finantzatzen laguntzeko turismoaren eta merkataritzaren arloetako ekimenei lotuta. Horrela, enpresek egungo enpleguari eutsi ahalko diote, eta, aldi berean, tokiko ekonomiaren indar endogenoa baliatuko dute, eskualdeko eta tokiko enplegu-jarduera trinkoak garatzeko.



(*) Legealdi honetan garatzeko plan estrategikoak.


ESPARRU-PROGRAMA LERROKATUTA DAGO 2020 ALDIKO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIAREKIN

2020 aldirako Enpleguaren Euskal Estrategiaren helburua (EVE 2020) EAEn datozen urteetan garatuko diren enplegu-politikak bideratzeko gidalerroak ezartzea da. Abiapuntutzat hartzen da testuinguru ekonomiko, sozial eta demografiko berriak «errezeta berriak» eskatzen dituela.

Estrategia hori herriko eragile sozialekin batera adostu da, eta bat dator Europa 2020 Estrategiarekin. Bertan ezarri dira helburu eta jardute-lerro lehenetsiak, Europar Batasunean hazkundea eta enplegua garatzeko.

Estrategia EAEn enplegua sustatzeko **sei jardute-ardatz handitan egituratu** da, eta garatu behar diren **41 gidalerro** ezarrita daude.

- **Aktibazioa.** Gaur egungo jarduera-tasa txikia handitzea, eta enpresek behar duten eskariari aurre egiteko beste biztanle aktibo edo gure ongizate-egoerari eusteko behar den beste landun ez egoteko arriskuari aurrea hartzea.
- **Prestakuntza eta gaitasunak.** Sare produktiboaren benetako premien arabera gaitasunak eskuratzea, eta ezagutza teknikoak, harremanetarako gaitasunak, hizkuntzak eta abarrak kontuan hartzea.
- **Aukerak sortzea.** Garapen ekonomikoa abiapuntutzat hartuta, aukerak garatzea eta gure ekonomiak enplegua sortzeko duen indarra guztiz erabiltzea.
- **Aukera berdinak.** Lan-merkatu sarkorra sortzea, merkatuko kolektibo eta talde guztiei bidezko aukerak eskainita.
- **Kalitateko enplegua.** Kalitate handiagoko enplegua eskaintzen duen lan-merkatua lortzea.
- **Enpleguaren Euskal Sistema eraginkorra eta efizientea, zerbitzu baliodunak eskaintzeko.** Gaur egungo Enpleguaren Euskal Sistema hobetzea, enpleguari buruzko politika guztiak bertan txertatzeko eta pertsonen beharretara gehiago bideratuta dauden zerbitzuak eskaintzeko.



Esparru-programan zehaztu diren planek bultzatzen dute 2020 aldirako Enpleguaren Euskal Estrategian zehaztutako gidalerro askoren garapen **operatiboa**; betiere ildo osagarriak –hala nola gure hezkuntza formala etengabe hobetzea (derrigorrezko hezkuntza, lanbide-heziketa eta unibertsitate-sistema)–

landu beharra kontuan hartuta. Horrela, Enpleguaren Euskal Estrategiak (2020) bere ikuspegi orokorretik proposatzen dituen erronkei aurre egin ahalko diegu.

2020 aldirako Enpleguaren Euskal Estrategia eta Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programa uztartzea

ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU-PROGRAMA 2020	ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2020 (EEE 2020)					
	A. Aktibazioa	B. Prestakuntza eta gaitasunak	C. Aukerak sortzea	D. Aukera-berdintasuna	E. Kalitatezko enplegua	F. Enpleguaren Euskal Sistema eraginkorra eta efizientea, zerbitzu baliodunak eskaintzeko
Enpleguaren Plan Estrategikoa 2017-2020	Biztanle aktibo gehiago eta enplegua gehiago hartzea garapen pertsonalerako eta gizarteratzerako tresnatzat	Gaitasunak epe laburreko eta epe ertaineko berme gisa garatzea	Lan-aukerak, tokiko garapenari, ekintzailetzari eta arlo zehatzei (birgaitzeari, adibidez) lotzea	Lan-merkatu sarkorragoa	Enplegu hobea (kualitatiboa)	Pertsonei eta enpresei zerbitzu hobea ematea
2017-2020 Industrializazio Plana: «Basque Country 4.0»		«Industria berria»ren beharrei lotutako gaitasunak	Industria-garapenari lotutako enplegu-aukerak			
Berrikuntza Plana: «EUSKADI 2020 ZTBP. Zentzuzko Espezializazio Estrategia (RIS3)»		Lotutako gaitasunak I+G+b arloari eta ekonomia digitalari lotzea	Enpresen sare berritzaileagoa izatea, eta handik sortutako enplegu-aukerak			
Nazioartekotze Plana: «2020 Nazioartekotze Esparru Estrategia: Basque Country estrategia»		Euskal enpresen nazioartekotzeari lotutako gaitasunak	Nazioarteko merkatura are gehiago zabaldu den enpresen sare izatea, eta handik sortutako enplegu-aukerak			
Inbertsio publikoko programa			Enplegu-aukerak, inbertsio publikoaren eragin bultzatzailearen ondorioz sortuta			

II.4

2 JARDUTE-ARDATZ: ENPLEGUA ETA SUSPERTZE EKONOMIKOA

II.4. 2 JARDUTE-ARDATZ: ENPLEGUA ETA SUSPERTZE EKONOMIKOA

2017-2020 aldirako, **bi jardute-ardatz handi** ezarrita daude: hazkundea eta enplegua berreskuratzea, **ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKO**aren bidez; eta ekonomia suspertzea, **4i Estrategiaren** bidez (inbertsioa, berrikuntza, nazioartekotzea eta industrializazioa).

2 JARDUTE-ARDATZ: ENPLEGUA ETA SUSPERTZE EKONOMIKOA

ENPLEGUA		SUSPERTZE EKONOMIKOA	
E.1	ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA	R.1	INBERTSIOA
E.2	EKINTZAILETZA SUSTATZEA		
E.3	GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA	R.2	BERRIKUNTZA
E.4	ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA		
E.5	LANERATZEKO PIZGARRIAK	R.3	NAZIOARTEKOTZEA
E.6	RENOVE BIRGAITZE-PROGRAMAK		
E.7	ENPLEGU PUBLIKOA	R.4	INDUSTRIALIZAZIOA
E.8	ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEA		
E.9	ENPLEGUAREN EUSKAL SISTEMA HOBETZEA		

Gure enpresa-sarearen lehiakortasuna indartzeko apustu osoa da 4i Estrategia, eta honako 4 eremu giltzarri hauek ditu oinarri:

- **BERRIKUNTZA**, jakintzan oinarrituta, jakintza balio ekonomikoa eta soziala bihurtzeko iturri izan dadin, ikerketaren eta garapenaren aldeko apustu sendoa eginda.
- **INDUSTRIALIZAZIOA**, eta faktore horren oinarrian, industria-espiritua berreskuratzea eta babes sendoa ematea ekonomia produktibo adimentsuari, garapenaren motorra izan dadin.
- **NAZIOARTEKOTZEA**, euskal enpresen arriskuak dibertsifikatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko bermerik segurua delako.
- **INBERTSIOA**, hainbat azpiegitura eta proiektu estrategiko egiteko komunikazioaren alorrean, alor sozialean, kulturean, ingurumenean, kirolean eta ekonomian.

II.4.1

ENPLEGUA SUSPERTZEA: ENPLEGU-PLANA

ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIATIK 2017-2020 ENPLEGU ESTRATEGIKOA SUSTATZEKO PLANERA

Enplegua, suspertze ekonomikoarekin batera, egungo legealdiaren zutabe nagusietakoa da. Hori dela-eta, enpleguaren arloan ezarritako konpromisoak garatzen jarraituko dugu, 2020. urteari begira.

Konpromiso horiek 2020 Enpleguaren Euskal Estrategian bilduta daude. Estrategia hori osatzeko, enpleguari buruzko hausnarketa eta itun ugari egin ziren, eta prozesua 2016ko uztaillean amaitu zen. Horri esker, estrategia garatzeko behar diren plan zehatzak hobeto ezartzen eta EAEn hurrengo urteetan bideratuko diren enplegu-politikak bideratzen lagunduko duten oinarriak era partekatuan finkatu ziren. Hori guztia egin behar da erakundeen lidergotik eta lankidetzaz publiko-pribatutik. Gizarte lehiakorrean eta aurreratuan, enplegua tresnatzat hartu behar da pertsona garatzeko, gizartearen kohesionatzeko, ekonomia garatzeko eta aberastasuna sortzeko.

ildo horretatik, **esparru-programan jasota daude 2017-2020 Enpleguaren Plan Estrategikoaren lerro orokorrak**. Horretan, enpleguari buruzko neurri zehatzak ere ezarrita daude:

- Enplegua sustatzea, egoera ahulagoan dauden pertsonen eta EAEko gazteen garrantzi berezia emanda.
- Laneratzea tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bidez sustatzea.
- Enplegurako prestakuntza sustatzea, langabeen eta landunen artean; horri lotuta, irizpide nagusitzat hartu behar da jakintza-ekonomian gaitasunak direla enplegu-bermerik handiena.
- Ekintzailetza era integratuz sustatzea, gure gizartearen duen garrantzia estrategikoari balioa emanez.
- Honako hauek baliatzea: garapen turistiko iraunkorrek enplegua sortzeko duen gaitasuna, tokiko merkataritzaren finkapena, sektore primarioaren modernizazioa eta gizarte-ekonomiaren garapena.
- Etxebizitzak eta tresneria publikoa birgaitzeko Renove programen aktibazioa lortzea, enplegua sortzeko jarduerak trinkoak direla egiaztatuta.

2017-2020 Enpleguaren Euskal Plan Estrategikoak zeharka bultzatuko du emakumeak ekonomia- eta lan-jardueretan guztiz txertatzea indartzen duten neurrien ezarpena.

Esparru-programan bildu dira 2017-2020 Enpleguaren Plan Estrategikoaren bidez eremu kuantitatiboan eta kualitatiboan garatuko diren helburu handiak eta eskema orokorra.

ENPLEGUAREN PLANA: 9 EREMU OPERATIBO

2017-2020 Enpleguaren Plan Estrategikoa **bederatzi eremu operatiboren arabera egituratuko da:**

E.1	ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA	Premisa hau abiapuntutzat hartu dugu: enpresek sortzen dute enplegua. Enplegua sortu ahal izateko, beharrezkoa da gure enpresen egituran gehiengoa duten enpresa ertainek eta txikiek beren lehiakortasuna hobetzea. Aldi berean, tokiko ekonomiaren indar endogenoa baliatu behar dugu, eskualdeko eta tokiko jarduera trinkoak garatzeko (esaterako, merkataritza, turismo jasangarria eta sektore primarioko jarduerak). Gainera, gure enpresen sarearen finantzaketari laguntza ematen jarraitu behar dugu. Finantziazioa ezinbestekoa da, enpresek gaur egungo enpleguari eutsi diezaioten eta indar hori erabil dezaten. Horrez gain, gizarte-ekonomia indartzen jarraitu behar da, gure herrian enplegua sortzeko ohiko motorra izan ohi delako.
E.2	EKINTZAILETZA SUSTATZEA	Epe luzeko lan egin behar da, EAEko gizartea gero eta ekintzaileagoa izan dadin. Zehatzago esanda, gizarte ekintzaileagoa izango bada, pertsonen –banaka zein taldeka, premiek edo aukerek bultzatuta– ideiak jarduera praktikoak bilakatu behar dituzte. Horrela, gizartean gero eta aintzatespen eta balio handiagoa duten ekintzailetza benetan izango da garapen ekonomikorako, kalitateko enplegurako eta gizartearen kohesiorako palanka. Horretarako, ezinbestekoa da EAEn kultura ekintzailea biziberritzea, autoenpleguko eta ekintzailetzako aukerak sustatzea eta enpresa berrien sorrera bideratzeko behar diren baliabideak eskaintzea.
E.3	GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA	Gazteen laneratzea funtsezkoa da. Pertsona heldu bat gizartean guztiz integratuko bada, ezinbesteko du garapen profesionala. Gazteei, hain zuzen ere, bereziki eragin die azken krisialdiaren eraginak. Hortaz, beharrezkoa da gazteen laneratzea bultzatzeko konpromiso irmoa neurri zehatzen bidez praktikan jartzea eta, zeharkako politika koordinatuaren bidez, enplegu-eta prestakuntza-aukerak sustatzea, gazteei lan-merkatura sartzea eta epe luzeko laneratzea bermatuko dieten gaitasunak eskuratzen laguntzeko.

E.4	ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	Pertsonen prestakuntza, edo askotan «talentua» deiturikoa, lehiakortasunaren faktore nagusia da gizarte modernoetan. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle garaikideak gure historiako gaituenak dira. Eskola-porrotaren tasa oso txikia da, eta prestakuntzaren kalitate ona nazioartean onartzen da, gure sare produktiboaren beharrei erantzuten dielako. Hala eta guztiz ere, oraindik ere prestakuntza eskasa edo zaharkitua duten biztanle-kopuru handiak ditugu. Bestalde, etengabeko prestakuntzaren mailak hobetu behar ditugu, etengabeko prestakuntza gizartean aintzat hartu eta sustatzen den dinamika izan arte. Gizarte aktiboa izate aldera, gaitasunak eskuratzea garapen profesional eta sozialaren zatitzat hartu, eta gaitasunen garapena ezinbestekotzat jo behar dugu, EAEren aurrerapenerako.
E.5	LANERATZEKO PIZGARRIAK	Suspertze ekonomikoaren aukerak benetako lanpostu bihurtu behar ditugu. Horretarako, enplegua sortzen laguntzeko pizgarrien aldeko apustua egingo da; zehazki, laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak lanera sar daitezen (gazteak, langabeak, 55 urtetik gorako pertsonak, genero-erasoak jasan dituzten pertsonak...). Gainera, tokiko eta eskualdeko enplegu-planak garatzeko apustua ere sustatzen da. Plan horiek udalerrietako eta eskualdeetako premien eta aukeren arabera moldatuko dira, tokiko enplegu-politiken eragina indartze aldera, eta tokiko enplegu-aukerak guztiz ustiatzeko.
E.6	RENOVE BIRGAITZE- PROGRAMAK	Krisiak indar bereziz eragin dio eraikuntza-sektoreari. Eraikuntzak, ordea, aukera dauka gure testuinguru ekonomikoan bere dimentsio logikoa berreskuratzeko. Birgaitze-sektorean enplegua sortu nahi dugu. Arlo horretan enplegu-aukera ugari daude, eta, gainera, garapen jasangarria sustatzen du. Zehatz-mehatz, honako arlo hauek lehenetsita daude: etxebizitzaren arloa (EAEko etxebizitzaren irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa hobetzeko jardueretan, batik bat), osasun-zentroen zaharberritzea eta osasun-zentroetako mantentze- eta birgaitze-lanak.

E.7	ENPLEGU PUBLIKOA	Enplegu publikoa sustatzeko apustua egiten dugu. Horretan, oinarritzat hartzen dugu belaunaldien arteko erreleboa egokia egitea eta enplegu publikoari lehentasuna ematea politika sozialekin lotutako eremuetan (bereziki, osasun- eta hezkuntza-eremuetan), ezinbestekoak diren beste zerbitzu batzuei lotutako eremuetan (adibidez, segurtasunean; zehazki, Ertzaintzako belaunaldien erreleboa egitea eta langileen kopurua handitzea) eta zerbitzu orokorreari buruzko beste eremu batzuetan (zerbitzu ekonomikoetan, plangintzako zerbitzuetan eta abarretan). Hori guztia egin behar da pertsona guztiei enplegu publikoan sartzeko aukera berdinak emanez eta hautaketa-prozesu ezin gardenagoak eginez.
E.8	ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEA	Kalitate handiagoko enplegua eskaintzen duen lan-merkatua sortzen lagundu nahi dugu. Enpleguaren kalitate handiagoak haxe bermatu behar du: enpleguaren behin-behinekotasuna eta eskatu ez den partzialtasuna murriztea, lan-segurtasuna eta -osasuna hobetzen laguntzea, enpresen erantzukizuna areagotzea eta giza baliabideen kudeaketa aurreratua edukitzea eta elkarriketa soziala eta negoziazio kolektiboa handitzea, betiere itun-printzipioak araututako lan-harremanen berezko testuinguruan.
E.9	ENPLEGUAREN EUSKAL SISTEMA HOBETZEA	Lanbide–Enpleguaren Euskal Zerbitzua sortzea funtsezkoa izan da, enplegu-politika aktiboen kudeaketa propioa egin ahal izateko. Lanbide martxan jarri eta hasierako urteak igaro ondoren, beharrezkoa da gure enplegu-zerbitzu publikoari beste bultzada bat ematea, enpleguan eragina izaten duten politika guztiak bertan biltzeko, enpresen zein pertsonen beharrei eraginkortasun eta efizientzia handiagoz –bai kontrol eta zorrotasun handiagoz ere– erantzuten dieten zerbitzuak sartzeko, eta baliozko zerbitzuak eskaintzeko.

E.1. ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA

HELBURU OROKORRA

EAEko enpresen sareari finantziazioa eskuratzen laguntzea eta tokiko ekonomiaren indar endogenoa baliatzea, eskualdeko eta tokiko enplegu-jarduerak garatzeko (adibidez, merkataritza, turismo iraunkorra, sektore primarioko jarduerak eta gizarte-ekonomia).

JARDUTE-ILDO LEHENETSIAK

- **Zailtasunak dituzten ETEei finantzaketa-laguntza ematea.** ETEei eta autonomoei finantziazioa eskaintzea, beren bideragarritasuna berma dezaten, kapital zirkulatzailearen premiei zein inbertsioak egiteko eta finantzaketa berriz antolatzeke dituzten beharrei erantzuteko. Horren bidez, kapitalizazioa handituta, finantza-egituraren bideragarritasuna sustatu nahi da.
- **Tokiko merkataritzan enplegua sustatzea.** Tokiko merkataritzaren garapenari lotutako enplegua sustatzea, abiapuntutzat hartuta gure herri eta hirietan auzoko saltokiek eginkizun estrategikoa dutela hiri- eta gizarte-dinamiketan.
- **Lehen sektoreko enplegua sustatzea.** Landa-garapena sustatzea, sektore primarioko jardueri eta haiekin zerikusia duten jarduera eraldatzaileei lagunduta, landako eta itsasertzeko tokiko enplegu-aukera berriak sortzen eta mantentzen laguntzen duen estrategia baten barruan.
- **Gizarte-ekonomia sustatzea.** Gizarte-ekonomia sustatzea eta horretarako laguntzak ematea, gizarte-enpresen berezko ezaugarria baita kalitateko enplegua sortzea. Laguntza hori honela emango da: gizarte-ekonomiari lotutako enpresa berriak sortzeko pizgarriak emanez eta dagoeneko eratuta dauden gizarte-ekonomiari buruzko ekimenak garatuz eta sendotuz.
- **Turismo-sektoreko enplegua sustatzea.** Garapen turistikoek eskaintzen dituzten enplegu-aukerak baliatzea; betiere baldin eta gure herri eta hirietan dauden dinamika sozial eta kulturekin bateragarriak eta jasagarriak badira.
- **Egoera ahulagoan dauden eskualdeak sustatzea.** Foru-aldundiekin eta eragindako udalerriekin batera lan egitea, egitura-aldaketa edo krisi handiak izanda, Europar Batasuneko eskualdeko laguntzen mapan (DAR) sartuta dauden eremuetan enplegua sortu edo sendotzeko jardute-programa integralak martxan jartzeko. Era berean, eskualdeko eta tokiko garapen-planak zailtasun bereziak dituzten herrietan sustatzea: esaterako, indize sozioekonomiko okerragoak dituzten udalerrietan, EAEko batez besteko langabezia-tasak baino tasa askoz ere handiagoak dituztenetan, altzairu-krisiak bereziki eragin dietan edota puntako enpresen itxieraren edo deslokalizazioaren ondorioz enplegu-galera handiak izan dituztenetan. Planetan honako hauek hartuko dira kontuan: enplegu-programetan jarduera trinkoa eta diskriminazio positiboa; bazterkeriaren aurka borrokatzea; prestakuntza; hiri-berronartzea; industria-zoruak berreskuratzea; ekonomia eta I+G+b programak suspertzea.

E.1. ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA: Ekimen garrantzitsuak

Zailtasunak dituzten ETEei finantzaketa-laguntza ematea	Tokiko merkataritza enplegua sustatzea	Tokiko sektore primarioan enplegua sustatzea	Gizarte-ekonomia sustatzea	Turismo-sektorean enplegua sustatzea	Egoera ahulagoan dauden eskualdeei eta udalerriei berariaz laguntzea
- Krisialdian dauden enpresak berregituratzeko eta berrekiteko laguntzak ematea (Bideratu Berria) - Inbertsioak egiteko eta berriz finantzatzeko abalak (Luzaro BEI) - Hitzarmena finantza-erakundeekin, ETEen eta autonomoen finantzaketa sendotzeko - ETEen eta autonomoen zirkulatzailea finantzatzeko funts osagarria	- Merkataritza-banaketaren dinamizatzaileak prestatzeko bekak - Merkataritza-saltokiak modernizatzea (MEC) - Kalitate-ziurtagiriak, merkataritza. Kudeaketa aurreratua (Euskalit) - Enpresak eskualdatzea - Merkataritza dinamizatzeko bulegoak - HIRIA 3.1, tokiko merkataritza garatzea - HIRIGUNE, hiriko merkataritzaren lehiakortasuna	- Landa-ekonomiaren dibertsifikazioa eta nekazaritzako ingurunetako bizi-kalitatea hobetzeko diru-laguntzak (Leader) - Jardueren finantzaketa eta sustapen- zein garapen-inbertsioak, nekazaritzako inguruetan - Itsasertzeko enpresak sortzeko, handitzeko eta modernizatzeko laguntzak (Itsaspen) - Nekazaritzako inguruneak garatzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak.	- Zailtasunak dituzten enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko bideragarritasun-azterketak egiteko aholkularitza - Zailtasunak dituzten enpresak birfinantzatzeko kapital funtsa, langileen kapital sozialean parte hartuz (Euskadi funtsa) - Ekonomia sozialeko prestakuntza sustatzea - Gizarte-ekonomiari lotutako enpresa berriak sortzen laguntzea eta dagoeneko eratuta daudenak finkatzea eta garatzea	- Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak (PTT) - Enpresa turistikoak modernizatzeko eta lehiakorago bilakatzeko laguntzak (MET) - Enpresak eskualdatzeko programak - Kudeaketa turistikoko prestakuntza aurreratua	- Foru-aldundiekin eta udalerriekin batera lan egitea, EBko eskualde-laguntzen mapan (DAR) sartuta dauden eremuetan jardute-programa integralak martxan jartzeko eta indize sozioekonomiko oso okerrak dituzten udalerrietan ekonomia eta gizartea dinamizatzeko - Europako Batzordeak egoera ahuleko udalerriak hartu dituen udalerrietan enplegua sortzeko inbertsioak sustatzea (Indartu)

E.2. EKINTZAIETZA SUSTATZEA

HELBURU OROKORRA

Ekintzailletza sustatzeko euskal sistema indartzea, ekintzaileen kultura euskal gizartean sustatzeko (gazteen artean, batik bat), enpresen ekimenei laguntza integrala emateko eta talentu ekintzailea kanpotik erakartzeko, espezializazio-eremu estrategikoetan. Helburu orokorra gure tradizio ekintzailea berreskuratzea da, bai eta Euskadi lurralde ekintzaile gisa sendotzea ere.

JARDUTE-ILDO LEHENETSIK

- **Ekintzailletza berritzailea eta intraekintzailletza sustatzea.** Hazkunde ekonomiko handia izan dezaketen enpresa berritzaile berriak garatzen eta sendotzen laguntzea, honako tresna hauek erabilita:
 - Arrisku-kapitala eta hazi-kapitala.
 - Gizarte-ekonomiaren sektorearen garapena eta merkatu-estrategiak erabiltzen dituzten beste ekintzailletza-jarduera batzuk sustatzea, gizarte-helburuak lortzeko.
 - Enplegua sortzeko aukera handiak eskaintzen dituzten enpresak sortzeko edo garatzeko proiektuei laguntza integrala ematea, diskriminazio positiboa eginez kultura- eta sormen-industriekin zerikusia duten enplegu-haztegiekiko, ingurumenarekin zerikusia duten enpresekiko (*green jobs*), arreta soziosanitarioarekin zerikusia dutenekiko (*white jobs*), informazioaren eta komunikazioaren teknologiekiko zerikusia dutenekiko (*blue jobs*) eta zentzuz espezializatzeko (RIS3) euskal estrategiaren esparruko sektore estrategikotzat hartzen direnekiko ere bai.
 - Intraekintzailletzari lotutako ekimenak dinamizatzea eta sustatzea, euskal enpresen barneko ekimen-indarra baliatzeko.
- **Autoenplegua eta mikroekintzailletza sustatzea.** Lanpostu berriak sor ditzaketen autonomo berriei eta mikroenpresei laguntza integrala ematea: batetik, proiektu berriak martxan jartzeko finantziazio-laguntza bereziak emanez, proiektu bakoitzaren araberako tresnak erabilita; eta, bestetik, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko 16/2012 Legean, ekainaren 28koan, ezarritako laguntza-tresnak garatuz.



E.2. EKINTZAIETZA SUSTATZEA: Ekimen garrantzitsuak

Ekintzailtza berritzailea eta intraekintzailtza sustatzea

- Arrisku-kapitala eta hazi-kapitala bultzatzea (Basque Fondo)
- Gaur egungo tresnak indartzea (Ekintzaile, BIND 4.0), espezializaziorako eremu estrategikoetako ekintzailtza sustatzeko
- Oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren ETEen sorrera eta garapena bultzatzea (Gauzatu Industria)
- Enpresa berriak hazitegi berrietan sustatzea
- Intraekintzailtzaren edo ekintzailtza korporatiboaren aldeko apustu diferentziala egitea

Autoenplegua eta mikroekintzailtza sustatzea

- Langabezia kapitalizatzea enplegu autonomia sortzeko
- «Enpresa ideia» bat garatzeko laguntzak ekintzailtzako tokiko proiektuen esparruan
- Ekintzailtzako tokiko proiektuen barruan enpresa jardura berriak abiaraztea sustatzeko laguntzak
- Enpresa jardura hasita, «proiektua sendotzeko» laguntza behar duten pertsonentzako laguntzak
- Ekintzailtza sustatzeko programak, foru-aldundien laguntzarekin batera eta tokiko zein eskualdeko eremuetan
- Mikrokredituen programa

E.3. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA

HELBURU OROKORRA

EAEko gazteen laneratzea eta epe luzeko enplegarritasuna bereziki sustatzea, garapen pertsonalerako eta profesionalerako prestakuntza, gaitasunak eta eskarmentua bermatuko dizkien zeharkako politika koordinatua aplikatuz.

Zeharkako beste tresna batzuetan parte hartzeaz gain, gazteen enplegua sustatzeko berariaz diseinatu diren pizgarriak eta programak eskainiko dira.

JARDUTE-ILDO LEHENETSIAK

- **Lehen Aukera programa.** Gazteen eta enpresen arteko lehen harremana sortzen laguntzea, gazteek lehen lan-aukera jaso ahal izan dezaten, prestakuntza eskasa duten gazteei lan-kontratua lortzeko aukera ere eskainita.
- **Hezkuntzatik lanera igarotzea.** Hezkuntza-testuingurutik lanera igarotzeko programa berria martxan jartzea, unibertsitateekin eta lanbide-heziketako ikastegiekin batera osatuta. Horrela, unibertsitateko edo lanbide-heziketako azken mailan dauden ikasleek lehen esperientzia praktikoa izango dute. Programaren arabera, ikasleek hiru hilabeteko esperientzia izango dute, hezkuntzatik lanera igarotzeko prozesuari lotuta.
- **Gazte ekintzaileei laguntzea.** Autoenplegua gazteen artean bereziki sustatzea, mikroenpresa berrien eta negozio txikien aldeko apustu sendoa eginda, eta enpresa bideragarriak ezartzeko eta garatzeko behar dituzten zerbitzuak eskainita.
- **Gazteei zuzendutako tokiko enplegu-planak.** Tokiko eta eskualdeko planen bidez kontratatzen diren langileen % 30 pertsona gazteak izatea, tokiko eta eskualdeko enplegu-hitzaumenetan eta akordioetan klausula berriak ezarrita.
- **Eraberritzeko edo erreleboa egiteko programetan gazteak hartzea.** Hurrengo urteetan lanpostuetan ordezkapenak edo erreleboak egiteko sortuko diren premiak direla-eta, enplegu-aukerak baliatzea, gazteei bereziki erreparatuta.
- **Gazteen itzulera sustatzea.** Gazteen itzulera sustatzeko programa berria martxan jartzea, jada abian dagoen Landhome programaren osagarri izateko. Programa berria erakundeen arteko lankidetzatik abiatuko da. Atzerrian prestatu edo eskarmentua bereganatu arren, Euskadira itzuli eta beren ibilbide profesionala bertan garatu nahi duten gazteak enpresek kontrata ditzaten bideratuko da, batik bat.
- **Talentu gaztea.** Euskal gazteei bikaintasuneko kualifikaziorako aukera bat ematea, eta, aldi berean, pizgarriak ezartzea, gazte-talentua Euskadin mantentzeko, bai eta kalitatezko enplegu-aukerak eskaintzea ere, nazioarteko lan-esperientzia bat izan ondoren Euskadira itzuli diren gazteei.

- **Gazteak eremu zehatzetan laneratzea.** Laneratzeko programa bereziak garatzea eremu zehatzetan, laguntza eta pizgarriak emateko neurri zehatzen bidez. Laneratzeko eta ekintzaile aritzeko programei lehentasuna emango zaie sektore espezifikoetan, eta, bereziki, sormen- eta kultura-industrietan, pertsonei zaintza eta arreta emateko lanetan, ingurumena berroneratzeko arloan, aisialdi eta turismo arloan eta merkataritzan.
- **Prestakuntza duala eta prestakuntza lantokietan jasotzea.** Enpleguko eta prestakuntzako ekintza eta ekimen mistoen multzoa indartzea, ordaindutako lan-jardueraren txandakatze-araubidearen arabera, enplegurako lanbide-heziketaren sistemaren edo hezkuntza-sistemaren esparruan prestakuntza-jarduera duen enpresa batean. Prestakuntza dualeko programa indartuko da, gaitasunen garapena bizkortzeko bidetzat eta lanbide-eremuetara egokitzeko tresnatzat hartuta, gazteen enplegarritasuna hobetzeko. Gaur egun, ikas-ekinezko prestakuntza 20 lanbide-sektoretan egiten ari da. Gutxi gorabehera, 1.200 ikaslek jasotzen dute, urtean. Aldi berean, osagarri gisa, prestakuntza lantokietan bertan jasotzeko ekimenak garatzen ari dira. Prestakuntza mota horretan 8.600 enpresak parte hartzen dute, bai eta 11.700 ikaslek ere. Helburua prozesu biak –lantokietan emandako prestakuntza eta ikas-ekinezko prestakuntza– lotzea da. Horrela, ikasleak eta lehen motako prestakuntzan parte hartzen duten enpresak pixkanaka sartuko dira ikas-ekinezko prestakuntzan.
- **Gazteen enplegurako prestakuntza.** Laneratzea sustatzeko ekimenak eta birziklatzeko edo bigarren aukera izateko ikastaroak egitea, prestakuntza eskasagoa edo gure enpresa-sareko eskarien arabeko gaitasunak ez dituzten gazteek aukera izan dezaten, testuinguru horretan sartzeko eta etorkizuneko lanbide-ibilbide berriei ekiteko.



E.3. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA: Ekimen garrantzitsuak

Lehen Aukera programa	Hezkuntzatik lanera igarotzea	Gazte ekintzaileei laguntzea	Gazteei zuzendutako tokiko enplegu-planak	Errelebo- edo eraberritze-planak
Gazteen kontratazioa sustatzeko planak, Lehen Aukera programa indartuta	Unibertsitateekin eta lanbide-heziketarekin elkarlanean aritzea, lehen esperientzia praktikoa eskuratzeko	- Enpresa berrien sorrera sustatzea, ikasketa trinkoak egiteko zentroekin elkarlanean, baita ekintzailetza sustatzen duten beste erakunde batzuekin ere (adibidez, Gauzatu, Ekintzaile, Gaztenpresa, Urrats bat erakundeekin) - Autoenplegurako programa - Ekintzailetza-hitzarmenak (lanbide-heziketa eta unibertsitateak)	Tokiko eta eskualdeko enplegu-planetan klausula berriak sartzea	- Errelebo-kontratuak - Berrikuntza sektore publikoan
Gazteen itzulera sustatzea	Gazteen talentua	Gazteak eremu zehatzetan laneratzea	Prestakuntza duala	Gazteen prestakuntza, enplegurako
- Gazteen itzulera sustatzeko programa berria - Landhome programa	- Enpresa-bizipen praktikoa bereganatzeko bekak (nazioartekotzeko bekak eta Global Training bekak) - Garapen eta ikerketarako bekak nekazaritza eta arrantzaren sektorean	Laneratzeko eta ekintzaile aritzeko programak sektore espezifikotetan, eta, bereziki, sormen- eta kultura-industrietan, pertsonen zaintza eta arreta emateko lanetan, ingurumena berroneratzeko arloan, aisialdi eta turismo arloan eta merkataritzan	- Prestakuntza duala sustatzeko programak lanbide-heziketan sustatzea - Prestakuntza duala sustatzeko programak unibertsitate-eremuan sustatzea	- Birziklatzeko eta bigarren aukera izateko ikastaroak - Laneratzeko prestakuntza - Prestakuntza-hitzarmenak, klusterrekin eta euskal enpresekin kontratazio-konpromisoak ezarrita

E.4. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

HELBURU OROKORRA

Enpresen artean eta langileen artean (langabeak nahiz lanean ari direnak) lehiakortasun- eta kualifikazio-beharrizanei aurre egiteko prestakuntza bultzatzea eta zabaltzea. Prestakuntza horrek, halaber, gizartea kohesionatzen eta ekonomia garatzen lagunduko du, jakintzan oinarritutako ekonomiaren esparruan.

JARDUTE-ILDO LEHENETSIAK

- **Langabeen prestakuntza.** Prestakuntza osagarria edo beste prestakuntza mota bat jasotzeko prozesuak sustatzea, lan-eskarmentu handia izan arren, lanbide-gaitasunak berriz bideratu nahi dituzten pertsonen zuzenduta; horrela, enplegarritasuna hobetzeko aukera izango dute, etorkizuneko lanbideetara bideratutako prestakuntza-ekintzen bitartez.
- **Kontratazio-konpromisodun prestakuntza.** Langabezian dauden pertsonak lan-munduan berriz sartzen laguntzea. Horretarako, prestakuntza-ekintzak egingo dira, eta parte hartzen duten erakundeek ondoren kontratatzeko konpromisoa hartuko dute. Helburua berariazko prestakuntza eskaintzea da, langileak enpresetan lanean has daitezen, enpresen beharrian zehatzak asetzeko, lan-merkatuan eskuragarri ez dauden lanbide-profil zehatzak behar dituztelako, eta, lan-aukera baliatzeko, berariazko kualifikazio osagarria behar dutelako.
- **Landunentzako prestakuntza.** Langileen prestakuntza hobetzea, haien gaitasunak eta enpresako produktibitatea hobetze aldera. Zehazki, etengabeko prestakuntzak, etengabeko ikaskuntzak eta gaitasunen egiaztapenak pertsonen enplegarritasuna areagotzen lagunduko dute.

Zeharkako eta sormenari lotutako gaitasunak eskuratzea zeharkako moduan landuko da, epe luzeko garapen pertsonal eta profesionalari buruzko ikuspegi integralagotik aztertuta. Halaber, **arlo digitaleko gaitasunen eta atzerriko hizkuntza-ikasketen aldeko apustua egingo da, etorkizunean enplegua** edukitzeko faktore erabakigarritzat hartuta.

E.4. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA: Ekimen garrantzitsuak

Langabeen prestakuntza

- Enplegu-erregulazioko espedienteetatik datozen pertsonentzako prestakuntza
- Bigarren aukerarako prestakuntza
- Prestakuntzako ekintza berritzaileak, arlo pribatuaren eta publikoaren laguntzarekin batera
- Enplegurako prestakuntza
- Lan-orientazio generikoa eta zehatza, egoera ahuleko kolektiboei zuzenduta

Kontratazio-konpromisodun prestakuntza

- Kontratazio-konpromisoa berekin dakarten prestakuntza-programak, bai banakako enpresetan, bai sektoreko taldeetan

Landunentzako prestakuntza

- Etengabeko prestakuntzaren eta etengabeko ikaskuntzaren garrantzi estrategikoari balioa ematea, banaka, enpresetan eta EAEko gizarte osoan
- Landunentzako prestakuntza-programak
- Lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez lortu diren gaitasun profesionalak ebaluatzea eta egiaztatzea

E.5. LANERATZEKO PIZGARRIAK

HELBURU OROKORRA

Enplegu-aukerak hobetzea, lan-kontratuak egiteko pizgarriak emanez, egoera ahuleneko edo enplegagarritasun txikiagoa duten kolektiboen aldeko diskriminazio positiboa eginez; horrela, enpleguak sortzeko helburuak errazago beteko dira, laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen aukera berdina ematen lagunduko da, baita enpleguaren kalitatea hobetuko ere.

JARDUTE-ILDO LEHENETSIAK

- **Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak.** Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen eta epe luzeko langabeen laneratzeko sustatzea, tokiko eta eskualdeko enplegu-planetan aldi baterako kontratazio-aukerak bultzatuta, baldin eta pertsona horiek geroago merkatuko lanpostu bat eskuratzeko aukera handiagoak izango badituzte.
- **Egoera ahuleko edo enplegagarritasun txikiagoko kolektiboen laneratzeko pizgarriak ematea.** Egoera ahulenean dauden kolektiboei laguntza ematea, kontratazio-pizgarriak emanez. Horrela, pertsona horiek aukera handiagoak izango dituzte ohiko merkatuko lanpostu bat eskuratzeko, aukera-berdinetan, gainerako kolektiboekin erkatuta. Horretan, bereziki lagunduko zaie 45 urtetik gorako epe luzeko langabeei, emakumeei eta mendekotasunen bat duten pertsonen.
- **Enplegu-zentro bereziak eta laneratzeko enpresak (bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak gaitzeko, gizarteratzeko eta laneratzeko).** Bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboen enplegagarritasuna sustatzea, gaitzeko ekintza zehatzak eginez, eta desgaitasunen bat duten pertsonen arreta berezia emanez.
- **Familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeko laguntzak.** Laguntza zuzeneko tresnak indartzea, baldin eta erantzukizun bateratua eta lanaren eta familiaren arteko bateragarritasuna ahalbidetzen badituzte, eta, hortaz, pertsona gehiagoren laneratzeko sustatzen badute. Horretarako, lan-utzialdian dauden pertsonak ordeztzeko eta lanaldi murriztuak osatzeko langileak kontratatzen dituztenei laguntzak ematea antolatu da, lanpostuak sortzen laguntzeko.

E.5. LANERATZEKO PIZGARRIAK: Ekimen garrantzitsuak

Eskualdeko eta tokiko enplegu-planak

- Enplegua bultzatzea, enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan
- Kontratazioa laguntzea, enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan
- Enplegua sortzeko bestelako tokiko garapen-ekintzak, enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan
- Proiektu estrategikoak, enplegua sustatzeko tokiko ekintzen barruan

Egoera ahuleko edo enplegarritasun txikiagoko kolektiboen laneratzeko pizgarriak ematea

- Kontratuak egiteko eta enplegu-aukerak sustatzeko pizgarriak, epe luzeko langabeei zuzenduta, bai eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo edo talde batzuei zuzenduta ere

Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak gaitzea, gizarteratzea eta laneratzea

- Egoera ahulean dauden kolektiboentzako enplegurako prestakuntza
- Enplegu-zentro bereziei laguntzea
- Laneratzeko enpresa berriak sustatzea, eta jada eratuta daudenei aurrera jarraitzen laguntzea
- Desgaitasunak dituzten pertsonen ohiko enpresetan lan-kontratu mugagabeak egiteko laguntzak
- Bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboentzako berariazko orientazioa
- Enplegurako laguntzak, ohiko merkatuan sustatuta
- Zeinu-hizkuntzarako itzulpenak egitea, trebakuntza-ekintzetan

Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak

- Lana eta familia bateragarri egiteko politikei lotutako enplegua sortzeko laguntzak ematea
- Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak ezartzea eta sustatzea

E.6. RENOVE BIRGAITZE-PROGRAMAK

HELBURU OROKORRA

RENOVE programak sustatzea, eraikuntza eta eraikin publikoak zein pribatuak birgaitzeko arloari lotuta (adibidez, osasun- edo hezkuntza-zentro publikoak birgaitzea). Arlo horiek eragin handia dute enpleguaren sorreran, zeharka, zuzenean eta modu indusituan.

JARDUTE-ILDO LEHENETSIK

- **RENOVE Etxebizitza.** Etxebizitzak birgaitzeko azpisektorean enplegua sortzeko pizgarriak ezartzea, eta euskal etxebizitzaren mantentze-egoera, irisgarritasuna eta energia-efizientzia hobetzea, birgaitze-politika adimendun, iraunkor eta integratzaile baten bidez.
- **RENOVE Ikastetxeak.** Eraikinak birgaitzeko azpisektorean enplegua sortzeko pizgarriak ezartzea, EAEko hezkuntza-zentro publikoetan hobekuntza-lanak eginez.
- **RENOVE Osasun-zentroak.** Eraikinak birgaitzeko sektorean enplegua sortzeko pizgarriak ezartzea, EAEko osasun publikoko zentroetan eta ekipamenduetan hobekuntza-lanak eginez.



E.6. RENOVE BIRGAITZE-PROGRAMAK: Ekimen garrantzitsuak

RENOVE Etxebizitza

- Banakako birgaitzea-lanak eta jabeen erkidegoetakoak egiteko laguntzak
- Birgaitze integraturako laguntzak

RENOVE Ikastetxeak

- Birgaitze-lanak ikastetxeetan

RENOVE Osasun-zentroak

- Birgaitze-lanak osasun-zentroetan

E.7. ENPLEGU PUBLIKOA

HELBURU OROKORRA

Kalitateko enplegua sortu eta hobetzen duen sektore publikoa finkatzea, enplegu-emaile lehiakorra eta efizientea izan dadin.

JARDUTE-ILDO LEHENETSIAK

- **Administrazio publikoak eraberritzea.** Belaunaldien arteko errelebo egokia egitea, eskualdaketak egiteko prozesu ordenatuak antolatuta, jakintza belaunaldi batetik bestera eskualdatuko dela bermatuta.
- **Enplegu publikoa lehenestea.** Enplegu publikoari lehentasuna ematea, politika sozialekin lotutako eremuetan (bereziki, osasun- eta hezkuntza-eremuetan), ezinbestekoak diren beste zerbitzu batzuei lotutako eremuetan (adibidez, segurtasunean; zehazki, Ertzaintzako belaunaldien erreleboa egitea eta langileen kopurua handitzea) eta zerbitzu orokorrei buruzko beste eremu batzuetan (zerbitzu ekonomikoetan, plangintzako zerbitzuetan eta abarretan).
- **Aukera berdinak.** Pertsona guztiei enplegu publikoan sartzeko aukera berdinak ematen eta hautaketa-prozesu ezin gardenagoak egiten jarraitzea.



E.8. ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEA

HELBURU OROKORRA

Kalitate handiagoko lan-merkatua sustatzea, honako hauek bermatuta: enpleguaren behin-behinekotasuna eta eskatu ez den partzialtasuna murriztea, lan-segurtasuna eta -osasuna hobetzen laguntzea, enpresen erantzukizuna areagotzea eta giza baliabideen kudeaketa aurreratua edukitzea, betiere itun-printzipioak araututako lan-harremanen berezko testuinguruan.

JARDUTE-ILDO LEHENETSIAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

■ Erakundeen parte-hartzea elkarrizketa sozialean:

- 2016ko uztailaren 22an, Elkarrizketa Sozialerako Mahaiak elkarrizketa soziala instituzionalizatzeko eta eragile sozialekin koordinatzeko gune bat sortzeari buruz hartu zituen konpromisoak egituratzea.
- Organo iraunkorra sortzea, adierazpena sinatu duten pertsonen osatuta. Erakundeen parte-hartzea ezartzea, bai eta zer eremu eta eginkizun garatu behar diren zehaztea ere.
- Erakundeen parte-hartzea sailen artean koordinatzea, lan-harremanei lotutako gaiak jorratzen dituzten sailak eta arloak ere barne hartuta.
- Organo instituzional iraunkorrak (hots, OSALANek) lan-segurtasunaren eta -osasunaren arloan, enplegu-politika aktiboen arloan (Enplegu Foroan) eta hezkuntza-arloan (Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan) eman dituen gomendioak aplikatzea.

■ Elkarrizketa soziala eta enpresan parte hartzea sustatzea, honako jardute-ildo hauek ezarrita:

- Lan-harremanetarako Euskal Sistema indartzea, kontseiluaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordearen jarduerak sustatuta, eta bitartekotza lan-gatazketan erabilita.
- Elkarrizketa soziala bultzatzea, elkarrizketa sozialeko organo iraunkorra sortuz eta sustatuz. Organo hori osatuko dute, Eusko Jaurilaritzako kideez gain, erakunde sindikal eta enpresa-erakunde adierazgarrienek, baldin eta organoan era instituzionalean parte hartu nahi badute.
- Lan-kalitatea, lan-egonkortasuna eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko negoziazio kolektiboa bultzatzea.
- Gizarte-eragileen parte-hartze instituzionala sustatzea eta elkarrizketa sozialeko pertsonaia nagusi aritzea.
- Langileen parte-hartzea enpresetan bultzatzea, helburu horretarako laguntza ekonomikoak eta zerga-pizgarriak emateko programak indartuta eta parte-hartzeari lotutako onuren gaineko ikerketa-, sentsibilizazio- eta hedapen-ekimenak euskal gizartean sustatuta.
- Langile autonomoak sustatzea, elkarte-sareen egiturak finkatuta, haien lanbide-interesak defendatzeko eta haiei aholku eta laguntza emateko.

■ **Gizarte- eta enpresa-erantzukizuna sustatzea**, honako ekimen hauen bitartez:

- Enpresen gizarte-erantzukizunaren kultura gure enpresetan sustatzea, enpresaren estamentu guztiek enpresaren garapenean parte hartzeko tresnatzat gardentasuna hartuta.
- Topaketak, hausnarketak eta eztabaidak antolatzea, lan-arloan eragina izaten duten gaiei buruz, baldin eta gaurkotasun-gaiak edo, etorkizunari begira, gai interesgarriak badira.

■ **Enplegu-politika pasiboen kudeaketa eta Gizarte Segurantzako araubide ekonomikoarena aldarrikatzea**, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan ezarritakoarekin bat etorrira, Transferentzien Batzorde Mistoan hitzarmenak negoziatuz, elkartasun-irizpidea eta sistemaren batasuna errespetatuta.

■ **Gizarte-ekonomiaren aldeko apustua egitea**, honako ekimen hauen bitartez*:

- Gizarte-ekonomiako enpresa berriak sortzeko pizgarriak.
- Gizarte-ekonomiaren gaur egungo ehuna sendotzea eta garatzea, sektore ekonomiko guztietan.
- Partzuergoak eta kooperazio-sareak osatzea, ekimenak gauzatzeko gaitasuna indartzeko.
- Berrikuntzaren, kalitatearen, teknologia-transferentziaren eta informazio-teknologiaren ezarpenaren arloetako gizarte-ekonomiaren sektoreari laguntzea.
- Gizarte-ekonomiari buruzko prestakuntza eta informazioa hezkuntza-maila eta -eremu guztietan hedatzea, helburu horretarako programak ekonomikoki piztuta. Gizarte-ekonomia bereziki bultzatuko da EAEko hiru unibertsitateetan eta lanbide-heziketan.
- Elkartegintza sustatzea, sektoreko erakunde adierazgarrienekin harremanetan jartzea bultzatuta.
- Gizarte-ekonomiaren gobernu ona eta enpresetako bazkideen prestakuntza sustatzea.
- Gizarte-ekonomiaren balore eta irizpideak eremu guztietan sustatzea.
- Erakundeen arteko ituna eta etengabeko lankidetzak publikoa eta pribatua, EAEko gizarte-ekonomiaren sustapena eta promozioa diseinatzeko eta gauzatzeko.
- Kooperatibei buruzko lege-aurreproiektuaren onarpena bultzatzea.

(*) Gizarte-ekonomiari buruzko ekimenak honako bi ikuspegi hauetatik aztertu eta jaso dira: aurrekontuen ikuspegitik eta «E.1. ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA» eremu operatiboan izango duten eraginaren ikuspegitik.

■ **Lan-iruzurraren aurka borrokatzea**, honako ekimen hauen bitartez:

- Lantokietako lan-baldintzak zaintzea.
- Lan-ikuskaritzak egiteko zerbitzuak indartzea eta kontratazio-irregularitasunak eta lan-iruzurra antzemateko ikuskaritza-kanpainak antolatzea.
- Sindikatu-antolaketa oso garatua ez duten kolektiboak ikuskatu ahal izateko neurriak garatzea.

■ **Kalitateko enplegua, enplegu segurua.** OSALANen bidez, konpromisoa hartzea segurtasunarekin eta lan-osasunarekin. Prebentzio-ordezkariei prestakuntza bermatzea eta enpresa ertain eta txikietan berariazko ikerketa- eta prebentzio-kanpainak egitea. Enpresen laguntzarekin batera, prebentzioa lehiakortasuna hobetzeko tresna dela hedatzeko baliabideak areagotzea.

BESTE SAIL BATZUK (ENPLEGUA ETA GIZARTE-POLITIKAK, EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK)

■ **Pizgarriak, langileek enpresan parte har dezaten.** Gaur egun, zenbait programa martxan daude, langileek enpresen kudeaketan eta kapitalean parte har dezaten; beraz, programa horiek are gehiago garatzea, lan-harreman berrietan berrikuntza-tresnatzat hartuta.

■ **Emakumeen enplegua hobetzea:**

- Emakumeak diru- eta lan-jardueretan erabat sartzea bultzatzeko neurriak sustatzea, eta emakumeen enplegu-kalitatea hobetzea. Emakumeen eta gizonen arteko langabezia-tasa globaletan ez dago desberdintasun esanguratsurik; hala ere, desberdintasun handiak antzematen dira, beste konparazio-adierazle batzuk aztertzen baldin baditugu: esaterako, jarduera-tasa (45 urtetik gorako emakumeen artekoa, batik bat), kontratuen behin-behinekotasuna edota partzialtasuna, soldatak eta lanbidean gora egiteko aukerak.
- Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak ematea. Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak ematea, jada martxan dauden tresnak indartuta. Horren harira, kontuan hartu behar da oraindik ere urrun gaudela Europar Batasuneko herrialde eta eskualde aurreratuenetako parametroetatik. Lanaren eta familiaren arteko bateragarritasuna lotu behar zaio beste batzuen kontura ordaintzen ez diren etxeko lanak eta zaintza-lanak egiteko «erantzukizun partekatua»-ri. Horretarako, gaur egungo laguntzak beste era batean antolatuko dira: 12 hilabetetik beherako haurrak zaintzeko lan-utzialdietarako laguntzak indartuko dira, bai eta lanaldiak murriztu ahal izateko laguntzak ere, premia bereziak dituzten familiak direnean (familia ugariak, guraso bakarrekoak edota senide batek desgaitasunen bat duenean).

E.9. ENPLEGUAREN EUSKAL SISTEMA HOBETZEA

HELBURU OROKORRA

Enpleguaren Euskal Sistema hobetzea, enpleguan eragina izaten duten politika guztiak barne hartzeko eta enpresen zein pertsonen beharrei erantzuteko hobeto prestatuta dauden zerbitzuak eskaintzeko. Sistema eraginkor eta efiziente garatzea, eta enplegu-politikak guztiz koordinatzea, sustapen ekonomikoko eta hezkuntzako politikekin.

JARDUTE-ILDO LEHENETSIAK

- **Lanbide eraberritzea eta modernizatzea.** Lanbideren zerbitzu guztiak hobetzea, enpresekin harreman gehiago garatuz eta pertsonen laguntza pertsonalizatua emanez, lanera daitezten. Horrez gain, tresnak eman behar zaizkio, orientatzeko, prestakuntza emateko eta laneratzeko funtzioak indartzeko. Lehenetsia eman behar diote enplegu-bila daudenei laguntzeari: bereziki, epe luzeko langabeak edo laneratzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuk direnean.
 - Lanbide osoa hobetzea. Lanbidek enpresei zein pertsonen balioko zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen dizkien enplegu-zerbitzu publikoa izan behar du (arreta emateko eredu berriari jarraituta).
 - Enpresei zuzendutako zerbitzuak garatzea (enpresei zuzendutako zerbitzu-zorroa).
 - Orientazio-espezializazioan eta pertsonen eskaintzako laguntzan aurrera egitea (enplegua eskatzen dutenei eskaintzeko zerbitzu-zorroa).
 - Orientaziorako eta laneratzeko arreta-eredu espezifikoak ezartzea, desgaitasunen bat duten pertsonen edo laneratzeko zailtasun bereziak edo gizartean edo lanean baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen zuzenduta.
 - Lanbideko sare-lana indartzea (koordinazio instituzional pribatua eta publikoa, gizartean eta lanean baztertuak izateko arriskuan daudenak laneratzeko).
- **Enplegu-arloko behaketa eta prospekzio-lana hobetzea.** Beharrei eraginkortasun handiagoz aurrera hartzea. Horretarako, prospekzio- eta informazio-sistema sistematizatuko da, Lanbideren berezko jardueratik datozen informazio-fluxuak eta beste eragile batzuetatik eratorritako informazioa bertan integratzeko. Horrela, enpleguari eta prestakuntzari lotutako joerak, aukerak eta beharrak lehenago antzemango dira.
 - Behatoki bat ezartzea enpleguari eta prestakuntzari lotutako joerak, aukerak eta beharrak lehenago antzemateko.
 - Enpleguari lotutako zerbitzuak eta programak ebaluatzen hobekuntzak.

- **Enpleguari lotutako zerbitzuen eta programen ebaluazio sakonagoa egitea.** Enpleguari lotutako zerbitzuen eta programen ebaluazioa hobetzea, eragindako eragileei eta gizarte osoari informazio hori gardentasunez emanda. Enplegu-politika publikoen eragina ebaluatzeko sistema eraginkorra ezartzea



II.4.2

EKONOMIA SUSPERTZEA – 4i ESTRATEGIA

EKONOMIA-LEHIAKORTASUNERAKO ESTRATEGIA: 4 PLAN OPERATIBO

Lehiari lotuta, gure ekonomiak gainditu behar dituen erronkekin eta ezarritako ikuspegiarekin bat etorrira, **4i Estrategia (ekonomia suspertzeko euskal estrategia) osatzen duten 4 planen** garapenean oinarritzen da:

R.1	INBERTSIOA	Inbertsioaren aldeko apustua, hazkunde ekonomikoa eta enplegua bultzatzeko motor gisa. Enplegua zuzenean sortzeko eta epe luzeko ondorioak eragiteko, azpiegiturak funtsezko faktoreak dira kanpoko inbertsio produktiboak eta lehiakortasuna erakartzeko. Inbertsioaren aldeko apustu globalean, bereziki beharrezkoa da gure azpiegiturak hobetzen eta sendotzen jarraitzeko, bai arlo ekonomikoari lotuta daudenak, bai arlo sozialekoak (hezkuntzako eta osasuneko azpiegiturak).
R.2	BERRIKUNTZA	I+G+b sustatzea, enpresa-sare berritzailea osatzen jarraitzeko, eta sarea nazioartean lehiatzeko eta EAEn kalitateko enplegua bermatzeko gai izatea. Horren harira, gure konpromisoa bat dator 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean ezarritako lerroarekin. Gainera, arreta berezia ematen zaie gure garapen ekonomikoan lehentasuna duten sektoreei, teknologiei eta nitxoei, zehatz-mehatz, 2020rako ezarri den zentzuzko espezializaziorako estrategian (RIS3) egindako hausnarketa-prozesuan ezarri zirenei. Horren oinarrian kontuan hartu dira gure sare produktiboaren eta gure zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sistemaren gaitasunak.
R.3	NAZIOARTEKOTZEA	Euskadiren etorkizuna munduko testuinguruan erabakitzen da. Horretarako, euskal enpresen nazioartekotzea herri-erronka bilakatu da. Euskal Autonomia Erkidegoak garrantzia bereganatu nahi du testuinguru horretan, eta eragile global gisako posizioa eskuratu. Aldi berean, euskal enpresei nazioarteko merkatura zabaltzen eta aukera ekonomikoak bilatzen lagunduko die.
R.4	INDUSTRIALIZAZIOA	Gure ongizaterako eta gure garapen ekonomikorako, funtsezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoak sare ekonomiko indartsua izatea eta mundura zabalik egotea, produktibitatearen aldeko apustua eginda, berrikuntzaren eta giza baliabideen kualifikazioaren bidez. Horregatik, zailtasunak dituzten enpresen lehiakortasunaren aldeko apustua egingo da, bai eta aberastasunari eta enpleguari lotutako ondorio onak sortzeko gai diren hedapen-proiektu berriak dituzten enpresen alde ere. Apustu global horretan, beste behin ere azpimarratu nahi dugu industria-ekonomia garela, eta «4.0 industria»ra doan industria-enpresen eraldaketan posizio argia dugula.

II.4.2.1

INBERTSIO-programa

INBERTSIO PUBLIKOKO PROGRAMA: HERRIA ERAIKITZEN JARRAITZEKO APUSTU IRMOA

Azpiegituretan inbertitzea funtsezkoa da, hazkunde ekonomikorako, bizi-kalitatea hobetzeko eta luraren egituraketa osatzeko. Gainera, lurraldearen zein bertan jarduten duten eragileen lehiakortasuna nabarmen hobetzen ditu. Bestalde, garapen jasangarriagoa ere bermatzen du.

Inbertsioek laguntzen dute garapen jasangarriagoa lortzen, baldin eta onura sozialak kostu sozialak baino handiagoak badira; mugikortasunaren kostua eta eragina murrizten badituzte; petrolioaren mendeotasuna eta berotegiko gasen igorpena murrizten badituzte; eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzen badute. Beraz, inbertitzea baino, gako da ondo inbertitzea. Hortaz, lehentasuna eman behar zaie inbertsio jasangarrienei eta errentagarrienei, ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik.

2017-2020 aldian, Gobernuak asmo handiko inbertsio-proiektuak amaitu, eta proiektu berriak abiarazi nahi ditu. Horren ondorioz, asmo handiko proiektu-zorua osatu da, eta haietako 40 proiektu estrategikoak dira. Proiektu guztiak garrantzitsuak dira, garapen jasangarriko hiru dimentsioak kontuan hartuta. Dena den, argi dago abiadura handiko trena nabarmendu behar dela: aurrekontuetan eta ekonomian izango duen eraginarengatik, bai eta gure posizionamendu geostrategikoarengatik ere.



HELBURUAK

- Euskal Autonomia Erkidegoan garraio-azpiegitura modernoak eta lehiakorrak ezartzea. Hortaz, azpiegiturak prestatu beharko dira, jasangarrienak eta iraunkorrenak diren garraio-moduak erabiltzeko eta, ikuspegi sozial eta ekonomikotik, errentagarriak izateko.
- Garraio-sistemen integrazioa sustatzea. Horren harira, garraioetarako erabiltzen diren baliabide ekonomikoek, materialek eta giza baliabideek efizienteak izan beharko dute, eta, garraibideen artean, trenbideari lehentasuna eman beharko zaio.
- Intermodalitatea bultzatzea, pertsonak garraiatzeko edo salgaiak garraiatzeko. Garraio publikoko sareak koordinatua eta integratua izan beharko du, eta lurralde bakoitzeko aukera guztiak baliatu beharko ditu. Horrez gain, motordun mugikortasuna murrizte aldera, eskaintza arrazionalizatu beharko du, hurbiltasuneko zentro logistikoak garatuta.
- Euskal Autonomia Erkidegoa barrualdetik egituratzen duten azpiegiturak sustatzea, baita Euskadi eta Europako garapen-ardatzak lotzen dituzten azpiegiturak ere (horren adibide bat euskal trenbide-sarea da (sare transeuroparra). Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoak Atlantikoko ardatzaren errotula gisako posizioa indartuko luke.
- Bikaintasuneko portu- eta logistika-sistema garatzea portuetan eta aireportuetan, jarduketa integral eta koordinatu bidez.
- Euskal enpresa-sarearen lehiakortasuna bultzatzen duten azpiegiturak eta zerbitzuak garatzea.
- Ingurumenaren jasangarritasuna eta hiri-berroneratzea indartzea.
- Gizarte-tresneriarik onena herritarren eskura uztea; bereziki, osasun- eta hezkuntza-eremuetan.

INBERTSIORAKO EREMU LEHENETSIAK

■ Jarduera ekonomikorako eta mugikortasunerako azpiegiturak:

- Bide-azpiegiturak eta zentro logistikoak.
- Trenbide-azpiegiturak.
- Portuetako eta aireportuetako azpiegiturak.
- Industria-azpiegiturak.
- Energiako azpiegitura.
- Telekomunikazio- azpiegiturak.

■ Hiria eta ingurumena berroneratzeko azpiegiturak:

- Azpiegitura hidraulikoak.
- Ingurumen-arloko azpiegiturak.
- Hiria berroneratzeko azpiegiturak.

■ Hezkuntzako eta osasuneko azpiegiturak:

- Hezkuntzako eta kulturako azpiegiturak.
- Osasun-azpiegiturak.

■ Bestelako inbertsioak:

- Informazioa prozesatzeko ekipamenduak.
- Altzariak.
- Makinak.



R.1. INBERTSIOA: Arlo lehenetsiak

Jarduera ekonomikorako eta mugikortasunerako egiturak

- Bide-azpiegiturak eta zentro logistikoak
- Trenbide-azpiegiturak
- Portuetako eta aireportuetako azpiegiturak
- Industria-azpiegiturak
- Energiako azpiegitura
- Telekomunikazio-azpiegiturak

Hiria eta ingurumena berroneratzeko azpiegiturak

- Azpiegitura hidraulikoak
- Ingurumen-arloko azpiegiturak
- Hiria berroneratzeko azpiegiturak

Hezkuntzako eta osasuneko azpiegiturak

- Hezkuntzako eta kulturako azpiegiturak
- Osasun azpiegiturak

Beste inbertsio batzuk

- Informazioa prozesatzeko ekipamenduak
- Altzariak
- Makinak

40 ikerketa-proiektu estrategiko berri



INBERTSIOA AZPIEGITURETAN ETA MUGIKORTASUNEAN BULTZATZEA

1. Ezkerraldeko teknologia-parkea handitzea (1. fasea)
2. Hegoaldeko trenbide-saihesbidea (ikerlanak eta proiektuak)
3. Abiadura handiko trenaren azpiegitura
4. Jundizeko terminal intermodala
5. Jundiz-Forondako trenbide-lotura
6. Arasur trenbide-plataforma
7. Donostialdeko alderik aldeko trenbidea
8. Metro Bilbao. 3. linea
9. Gasteizko tranbia
10. Lezoko plataforma logistikoa handitzea
11. Gasteizko BRT sare integratua
12. Bilboko trenbidea: Zorrozaurre-Autonomia eta Zabalburu
13. Debako trenbide-geltokia eraldatzea
14. Ermuko trenbide-geltokia bikoiztea eta berritzea
15. Ondarroako eta Donostiako arrain-lonjak eraberritzea eta handitzea
16. Industriako zibersegurtasun-zentroa



HIRIA ETA INGURUMENA BERRONERATZEA BULTZATZEA

17. Gasteizko Koroatze auzoa berroneratzeko proiektua amaitzea
18. Oiongo araztegia amaitzea
19. Gasteizko egokitza pen hidraulikoa
20. Ibaizabal-Nerbioi ibaia bideratzea (Laudio)
21. Kadagua ibaia bideratzea (Zalla)
22. Pasaiaiko portua birgaitzea
23. Aguraingo eta Dulantziko hondakin-uren araztegia saneatzea
24. Ibaizabal ibaia bideratzea (Galdakao)
25. Gobelas ibaia bideratzea (Fadura)
26. Urdaibaiko saneamendua. Sukarrietako ponpaketa; Gernikako-Busturiako bilgailua; Muxika-Gernikako bilgailua
27. Mallabiako saneamendua
28. Mutrikuko saneamendua
29. Urumea ibaia bideratzea (Martutene)



LEHEN HEZKUNTZAKO ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO AZPIEGITURAK HANDITZEA

- 30. Gipuzkoako ikastetxe berriak: Miguel Altuna (Bergara) LH; Hernani BHI; Arroa HLHI Behera (Zestoa); Oikia HLHI (Zumaia)
- 31. Arabako ikastetxe berriak: Zabalgana BHI (Gasteiz); Errekabarri HLHI (Salburua, Gasteiz); Aldaialde HLHI (Zabalgana, Gasteiz)
- 32. Bizkaiko ikastetxe berriak: Iruarte HLHI (Bilbo); Bizkotxalde HLHI (Basauri); Ugao BHI; Gueñes BHI; Pagasarribide BHI (Bilbo)



LEHEN HEZKUNTZAKO ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO AZPIEGITURAK HANDITZEA

- 33. Gipuzkoako osasun-etxe berriak: Alde Zaharra eta Aiete (Donostia)
- 34. Arabako osasun-etxe berriak: Amurrio; Kanpezu; Murgia
- 35. Bizkaiko osasun-etxe berriak: Zalla
- 36. Eibarko ospitalea irekitzea
- 37. BioCruces. Osasun-ikeruntzarako eraikin berria
- 38. Urdulizko ospitalea. Asistentzia-zerbitzu guztiak osatzea
- 39. Basurtuko ospitalea. Kirurgia- eta bizkortze-blokea
- 40. Gasteizko ospitale-azpiegiturak: Txagorritxuko ospitalea handitzea (larrialdiak, erditze-gela eta laguntza bidezko ugalketa-unitate berria); Txagorritxuko ospitaleko aparkalekua handitzea; Santiago ospitalea handitzea

II.4.2.2

BERRIKUNTZA plana

BERRIKUNTZA-PLANA

«EUSKADI 2020 ZTBP. ZENTZUZKO ESPEZIALIZAZIO-ESTRATEGIA (RIS3)»

«Euskadi 2020 ZTBP», Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean zentzuzko espezializaziorako estrategia ezarri da (Research & Innovation Smart Specialisation Strategy - RIS3). Planaren helburua azken 30 urteetan modu arrakastatsuan landu den **zientzia, teknologia eta berrikuntza sistemaren efizientzia-maila handitzea** da.

Plan honen helburua hauxe da: **zientzia-esparruaren eta enpresa-munduaren arteko lankidetza handitzea, I+G+b jarduerak emaitzetara bideratzeko**. Enpresen eskakizunak ase behar dituzte, eta Euskadiren erronka handiei aurre egiten lagundu behar dute emaitza horiek, enplegua eta aberastasun ekonomiko eta soziala sortzen laguntzeko.

Planaren abiapuntua herri-estrategia jakin bat da, hazkunde iraunkorreetan, giza garapenean eta hazkunde adimentsuan oinarrituta. Azken hazkunde mota horrek lotura estua du «zentzuzko espezializaziorako ikerketa- eta berrikuntza-estrategiekin». Europak bultzatzen ditu estrategia horiek, eskualdeko gaitasun produktiboekin eta gaitasun potentzialekin sinergia agerikoak dituzten eremuetan kontzentratzeko I+G+b alorrera bideratzen diren baliabideak eta inbertsioak.


MISIO BAT

Honela egituratzen da Euskadi 2020 ZTBP berriaren azken xedea:

Zientzia, teknologia eta berrikuntzako sistemaren espezializazio adimentsuan eta haren efizientiaren handitzean oinarritzea ikerketa eta berrikuntza politika, euskal gizartearen ongizatea, hazkunde ekonomiko iraunkorra eta enplegua hobetzeko.

3 LEHENTASUN ESTRATEGIKO ETA 4 AUKERA-EREMU

Zentzuzko espezializaziorako 3 lehentasun zehaztu dira. Fabrikazio aurreratuari, energiari eta biozientziei lotuta daude (giza osasuna jardueraren nukleo nagusia da). Horrez gain, 4 **aukera-nitxo** zehaztu dira, lurraldearekin lotuta.



3 lehentasun estrategiko

- Fabrikazio aurreratua
- Energia
- Biozientziak / Osasuna

4 eremu-arlo

- Elikagaigintza
- Hiri-habitata eta hiri-berroneratzea
- Kulturaren eta sormenaren arloko industriak
- Ekosistemak eta ingurumen-berroneratzea

BERRIKUNTZA PLANA, ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU-PROGRAMAN 2017-2020

HELBURUAK

- I+G+bko jarduna emaitzetara bideratzea, bikaintasunari, espezializazioari eta merkatuko hurbiltasunari arreta berezia emanez, eta inbertitutako baliabideak eta sortutako eragina emaitzen arabera ebaluatuz.
- Zentzuzko espezializaziorako «RIS3 Euskadi» estrategia garatzea, hiru lehentasun estrategikoak indartuta (fabrikazio aurreratua, energia eta osasuna), bai eta lau aukera-lurralde deiturikoak garatzea ere (elikadura, ekosistemak, hiri-habitata eta kultura- eta sormen-industriak). Horren guztiaren helburua Euskadi RIS3 strategiaren Europako erreferente gisa kokatzea da.
- Talentuari balioa emango zaio, eta giza kapitalaren garapena bermatuko da. Talentu zientifikoa berreskuratzea, sartzeko eta finkatzea, enpresen, unibertsitateen eta EAEko zientzia- eta teknologia-sareko eragileen laguntzarekin batera, euskal sare produktiboan ikertzaile gazteak sartzeko.
- Merkatutik hurbilago dagoen jardura zientifikoa eta teknologikoa sortzen laguntzea. Enpresa-sarearen premiak asetzeko, enpresarako eta gizarterako emaitza hobeak lortzeko eta garapen teknologikoa handitzeko, Zientzia Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen bikaintasunari esker.
- Teknologikoa ez den enpresa-berrikuntza enpresa ertain eta txikietan sustatzea, berrikuntza teknologikoa osatzeko eta kudeaketa aurreratuaren eredua euskal enpresen artean hedatzeko, lehiakorragoak izan daitezen.
- Euskadi Europako erreferente bihurtzea, TEIC industria-arloan aplikatzeko. Balio erantsi handiko produktuak eta zerbitzuak sortuko dira EAEko manufaktura-industriatik haraindian, eta banda zabal ultra-azkarra autonomia-erkidegoko lurralde osoan hedatuko da.
- Elikadura-kate osoa nazioarteko erreferente bilakatzea, produktuen eta gastronomiaren kalitate eta berrikuntzarengatik, aberastasuna eta enplegua sortzeko asmoz.
- Sektore publikoko berrikuntza bultzatzea eta administrazio elektronikoaren garapena finkatzea eta gauzatzea.



JARDUTE-ILDO LEHENETSIAK

■ Ikerketa zientifikoa eta unibertsitate-ikeruntza

- Ikerkuntza zientifikoa sustatzea.
- Unibertsitateko ikerkuntza-sistemeekin programa-kontratua egitea.
- Ikerbasqueren bultzada, talentua bereganatzeko, prestatzeko eta atxikitzeko.

■ Ikerketa teknologikoa eta industrialak

– Berrikuntza teknologikoa

- Zientzia Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen egoera berria finkatzea, eragileak berrordenatu ondoren.
- Berrikuntza teknologikoari zuzendutako laguntzen programetarako arkitektura berria garatzea: Emaitek+, Elkartek, Hazitek, Berrikertu.
- I+D+b finantzatzeko tresna publiko eta pribatu berriak aztertzea eta garatzea.
- Fabrikazio aurreratuko eta energiako pilotaje-taldeetatik eratorritako ekimen estrategikoak ezartzea.

– Agenda digitala

- TEIC berriak sektore estrategikoetan erabiltzea: I+G arlotik teknologiaren eta zerbitzuen garapenera arte.
- Industria adimenduna bultzatzea («etorkizuneko lantegiak») (Basque Industry 4.0 programa).
- Industriako enpresa txikiei eta ertainei laguntzea, 4.0 industriarako bidean (Industria digitaleko programa).
- Fabrikazio aurreratuko pilotaje-taldeetatik eratorritako ekimen estrategikoak ezartzea: 4.0 plataforma.
- TEIC berriak hedatzea (SPRI ekimena – enpresa digitala).
- Banda zabal ultra-azkarra EAEn hedatzea; bereziki, jarduera ekonomikoko esparruetan eta esparru periferikoetan (PEBA Euskadi).

– Berrikuntza ez-teknologikoa

- EAEko industria-enpresei laguntzea enpresa-kudeaketa hobetzen (Innobideak-Kudeabide).
- EAEko industria-enpresei laguntzea negozioak dibertsifikatzen (Innobideak-Lehiabide).
- EAEko enpresei laguntzea langileen parte-hartzea sustatzen (Innobideak-Pertsonak).
- Euskalit kudeaketa aurreratuko eredua eguneratzea, enpresen egoerara etengabe egokitzeko.
- Zibersegurtasunaren arloko ikerketa-proiektua.

■ Nekazaritzaren eta arrantzaren arloko ikerkuntza eta garapena sustatzea

- Berrikuntzarako eta ikerkuntzarako estrategia integrala garatzea, azpisektore guztien lehiakortasuna hobetzeko: nekazaritza-, arrantza-, baso- eta abeltzaintza-sektoreena.
- Ikerketa-lerro estrategikoak garatzea eta azpiegitura modernoak ezartzea, nekazaritza-, arrantza-, baso- eta elikadura-arloetako oinarritzko ezagutza zientifikoetan aurrera egiteko. Aurrerapen horretan lagunduko dute ikerketa-zentroek (adibidez, Azti Tecnalia eta Neiker Tecnalia zentroek) eta ikerketa sektorialetan jarduten duten beste zentro batzuek (adibidez, UPV/EHUK eta Basque Culinary Center-ek).
- Berrikuntza-proiektuak sustatzea, elikaduraren balio-kateko zenbait eragilarekin osatuta (sektorea, industrial eraldatzailea + gastronomia).

■ Osasun-ikerketa

- Osasun-ikerkuntza eta -berrikuntza sustatzea eta haren garapen estrategikoa bultzatzea, I+G+b arloko proiektuei laguntza emanez.
- Zentzuzko espezializaziorako RIS3 estrategiari lotuta, biozientzien eta osasunaren arloaren garapena sustatzea.

■ Ikerketa eta berrikuntza publikoa

- Administrazio elektronikoaren garapena finkatzea eta gauzatzea.
- Administrazioan berrikuntza sustatzea eta diseinuan, kudeaketan eta politika zein zerbitzu publikoen ebaluazioan herritarren eta profesionalen parte har dezaten bultzatzea.
- Kalitateko zerbitzuen eskaintza garatzea eta zenbait kanalen bidez eskuragarri izatea (aurrez aurrekoa, telefonoa, Internet).
- Kudeaketa administratiboaren efizientzia hobetzea, antolaketa egokituz, kudeaketa-eredu berriak ezarriz eta teknologiaren erabilera adimenduna eginez.
- Euskadiko agenda digitaleko 2020 estrategian ezarritako helburuak garatzea sektore publikoan.
- Berrikuntza publikoko plana sustatzea. Plana abian jarri da, gardentasuna, gobernu ona, herritarren parte-hartzea eta kudeaketa-sistemen berrikuntza sustatzeko, bai eta bezeroen zein herritarren zerbitzura dagoen antolaketa egokitzeko ere.

■ Berrikuntzako Funtz Estrategikoa. RIS3 Estrategia garatzeko ekimenak sustatzea, sailen arteko jarduketekin koordinatua eta elkarren osagarri izanik.

R.2. BERRIKUNTZA: Ekimen garrantzitsuak

Ikerketa zientifikoa eta unibertsitate-ikerkuntza	Ikerketa teknologikoa eta industrial			Nekazaritza eta arrantzaren arloko ikerketa eta garapena sustatzea	Osasun-ikerketa	Ikerketa eta berrikuntza publikoa	Berrikuntzarako Funts Estrategikoa
	Berrikuntza teknologikoa	Agenda digitala	Berrikuntza ez-teknologikoa				
• Zientziaren arloko ikerkuntza sustatzea • Unibertsitateko ikerkuntza-sistemeekin programa-kontratu egitea • Ikerbasque	• ZTBES sendotzea • Diru-laguntzen programa: Emaitek+, Elkartek, Hazitek, Berrikertu • I+D+b finantzatzeko tresna publiko eta pribatu berriak • Fabrikazio aurreratuko eta energiako pilotaje-taldeetatik eratorritako ekimen estrategikoa ezartzea	• Industria adimenduna bultzatzea Basque Industry 4.0 programa) • Industriako ETEei laguntzea (Industria digitaleko programa) • Pilotaje-taldeko ekimen estrategikoa ezartzea: 4.0 plataforma • PEBA Euskadi (banda zabal ultra-azkarra)	• Kudeaketa aurreratua – Innobideak estrategia: Kudeabide, Lehiabide eta Pertsonak	• I+G arloko proiektuei laguntzea, zentro zientifiko eta teknologikoen bidez (Neiker, Azti) • Berrikuntza-proiektuak sustatzea, elikaduraren balio-kateko zenbait eragilerekin osatuta	• Zentzuzko espezializazioak o RIS3 estrategiari lotuta, biozientzien eta osasunaren arloa garatzea • Osasun arloko I+G proiektuak finantzatzeko laguntza	• Administrazio elektronikoa • Berrikuntza publikoa	• RIS3 proiektu estrategikoa bultzatzea • Teknologiaren dibertsifikazioa sustatzea (RIS3 aukera-lurraldeak) • Berrikuntza ez teknologikoa eta berrikuntza soziala • RIS3 estrategiari lotutako ikerlanak, koordinazioa eta sentsibilizazio soziala • Innobasque

II.4.2.3

NAZIOARTEKOTZE-PLANA

NAZIOARTEKOTZE-PLANA

«NAZIOARTEKOTZEKO ESPARRU ESTRATEGIA 2020: BASQUE COUNTRY ESTRATEGIA»

2020ko Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Euskadik kanpoan izango duen presentzia ordenatu, eta haren kanpo-politika diseinatzen du Euskadi Basque Country estrategiak; horrez gain, helburuak finkatzen ditu eta Euskadi markaren ideia (Basque Country) gauzatzeko elementuak hornitzen ditu. Horretarako, **ezinbesteko bi esparru hauek batzen eta koordinatzen ditu: Kanpo-ekintza instituzionala eta enpresen nazioartekotzea.**

Alde horretatik, **enpresen nazioartekotzearen eta kanpo-proiektzio instituzionalaren ikuspegitik** formulatu dira helburuak eta ekimenak. Gobernuaren hainbat jarduera-eremu hartu dira; besteak beste, kanpo-ekintza bera, industria, kultura eta turismoa.

ESPARRU-ESTRATEGIAREN IKUSPEGIA ETA HELMENA

Konpromiso honek laburtzen du Estrategia Basque Country estrategiak Euskadiren nazioartekotzerako proposatzen duen **ikuspegia**:

Euskadi eragile globala izatea XXI. mendeko abangoardian; Europa eraikitzeko prozesuan leku propioa edukitzea; herri erakargarria izatea, oso lehiakorra, haren berezitasunarengatik ezaguna, bai eta honako faktore hauengatik ere: giza garapen iraunkorreko maila handiak dituelako, solidarioa delako, mundura zabaltzen delako, eta lotura estua duelako atzerrian dagoen euskal komunitatearekin.



Nazioarteko eremuan zabaltzeko estrategiak **lau jardute-bektore partekatutan**


taldekaturik daude:

- Euskadi kanpoan proiektatzea.
- Sektore-interesak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei aurre egiten laguntzea.
- Europar esparruarekin lerratzea.
- Jakintza eskuratzea.

Era berean, nazioartekotzea kontzeptu integratzaile hartuta, Basque Country estrategia zabaltzeko ezinbestekoa izango da Gobernuaren jarduerako hainbat eremu parte hartzea; hala ere, strategiaren horretan, kanpo-ekintza instituzionalak, enpresen nazioartekotzeak, turismoak eta kulturak izango dute egitekorik nabarmenena.

Basque Country estrategia abian jartzeko, beharrezkoa da **nazioartekotzeko sektore-planak** zehaztu eta egitea, eremu jakin batzuetan egin beharreko ekintza-lerroak eta jarduerak zehazteko.

Hori gertatuko da, esaterako, **kanpo-ekintza instituzionalaren** eremuan, kanpo-ekintzako planean eta **enpresen nazioartekotze-planean** zehazten baita hura. EAEko enpresa-sareak kanpoan duen presentzia handitzeko baliatu behar diren tresnak zehazten dituzte plan horiek.



NAZIOARTEKOTZE-PLANA, ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU-PROGRAMAN 2017-2020

HELBURUAK

- Euskal Autonomia Erkidegoa eragile global gisa kokatzea, eta nazioarteko testuinguruan garrantzi handiagoa izatea, aukera ekonomikoak eta enplegua sortzeko.
- Nazioartekotzeko «Basque Country» euskal estrategia garatzea, honela: Nazioartekotzeko Euskal Partzuergoa indartuz eta «Basque Country marka» atzerrian aurkezteko txartel gisa sendotuz.
- «Invest in Basque Country» estrategia sendotzea, atzerriko enpresak Euskadira ekartzeko eta Euskadiri atxikitzeko.
- Kanpo-ekintza aktiboa. Erabakiak hartzeko prozesu erkideetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren parte-hartze zuzena bultzatzea eta euskal eragile publiko eta pribatuen inplikazioa gero eta handiagoa izatea Europako proiektu eta ekimenetan.
- Euskal enpresei nazioartekotzen eta aukera ekonomikoak bilatzen laguntzea.
- EAEko ekonomia nazioartekotzeko prozesuan gero eta eragile publiko eta pribatu gehiagok parte har dezaten sustatzea.
- Euskadiren atzerriko ordezkartzen eta bulego sektorialen sarea finkatzea, eta EAEko enpresei interesatzen zaizkien helmugen norabideetan hedatzen laguntzea.



JARDUTE-ILDO LEHENETSIK

■ Kanpoko ekintza instituzionala

- Nazioartekotzeko estrategia partekatua garatzea:
 - «Basque Country» marka garatzea eta sustatzea, atzerrian Euskadi ezagutzeko identifikatzaile gisa. Horrela, Euskadiren irudia indartuko da, orokorrean; eta, bereziki, enpresarena.
 - Euskadiko harreman ekonomiko eta instituzionalak indartzeko estrategia definitzea, arlo eta merkatu estrategikoak bereizita, indar handiaren arabera.
 - Hitzarmen iraunkorrak bultzatzea, beste europar eskualde batzuekin sinatuta, sare partekatuak sortzeko.
- Atzerriko ekintza instituzionalak koordinatzea eta dauden harremanak eta sareak batera baliatzea, erakundeak, merkataritza-ganberak, enpresa handiak, enpresa ertain eta txikiak eta eragile zientifiko eta teknologikoak barne hartuta.
- Euskadiren eragina atzerrian areagotzeko sareak indartzea:
 - Euskal diasporarekin osatu diren loturak indartzea, lotura kulturala eta historikoa ez ezik, proiektzio instituzionala eta enpresariala ere bultzatzeko.
 - EAEko bazkide estrategikoekin eta sareekin sortu den lankidetzazabaltzea eta finkatzea, atzerriko jardunerako.
 - Euskadiren atzerriko ordezkartzen eta bulego sektorialen sarea finkatzea eta indartzea, lehenetsitako herrialdeen zabalkuntzan aurrera egiteko.
- Hainbat sailen arteko estrategia atzerrian, Euskadin sortu diren proiektuak integratuz, koordinatuz: esaterako, kultura-, hezkuntza-, osasun- eta ingurumen-arloetako proiektuak.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

■ Euskal enpresei nazioartekotzen laguntzea

- Hainbat kokapen dituzten enpresen garapena bultzatzea:
 - Enpresa-plataforma berriak atzerrian abiaraztea, Euskadiko trakzio-taldeen eta industria-sarearen laguntzarekin batera. Horrela, munduko esparru dinamikoetan errazago jarriko dira martxan proiektu berriak.
 - Plan estrategikoa definitzea eta ezartzea, nazioarteko proiektu handietan eta proiektu multilateraletan parte hartzea bultzatzeko.
 - Enpresa pribatuekin batera, euskal funts bat sortzea, EAEko enpresei nazioarteko ingeniari- eta aholkulari- proiektuetan parte hartzen laguntzeko eta parte-hartze hori sustatzeko.
 - Esportazio-eragiketa handiei laguntza emateko finantzaketa-tresnak indartzea.
- Enpresa ertain eta txikiei nazioartekotzen laguntzea, EAEko ETEen esportazio-oinarria handitzeko:
 - Esportazio-partzuergoak eta elkarte sektorialak indartzea: batetik, ETEen gaitasunak indartzeko eta osatzeko; eta, bestetik, nazioartekotzeko erronkari heldu ahal izateko.
 - Sortzen ari diren merkatuetan ETEak ere egon daitezen bultzatzea, indar handiko merkatu berrietan prospekzioa, zuzeneko esportazioa eta merkataritzako ezarpena eta ezarpen produktiboa ere sustatuta.
- Nazioartekotzeko giza kapitala: giza baliabideen gaitasunak. Atzerriko praktika-programak indartzea, gazteak kanpoko merkataritzan eta nazioartekotzeko prozesuetan trebatzeko; horrela, EAEko enpresek behar dituzten langileak egoki gaitu ahal izatea, kanpoko merkatuetan hedatzen hasteko edo jarraitzeko.

R.3. NAZIOARTEKOTZEA: Ekimen garrantzitsuak



II.4.2.4


INDUSTRIALIZAZIO Plana

MERKATARITZA PLANA 2014-2016

2014-2016 Industrializazio Plana testuinguru ekonomiko konplexuan egin eta ezarri zen. Krisialdiak 100.000 lanpostu suntsitu zituen, 2007. urtetik aurrera, eta enpresen sareari jada antzematen zitzaizkion akidura-zantzuak.

Eusko Jaurlaritzak industriaren lehiakortasuna bultzatzeko egiten dituen apustuak adierazten ditu planak, eta eskura dauden industria-sustapeneko tresna eta baliabide guztiak baliatzen ditu, gainerako plan estrategikoekin eta sailetako planekin koordinatuta, euskal industrian eragin dezaten.

Plana honela egituratuta zegoen: zazpi helburu, bost ardatz estrategiko eta, guztira, 20 ekintza-lerro zehaztu ziren. Esleitutako aurrekontua 187 milioi eurokoa zen, 2014-2016. aldirako.



BASQUE INDUSTRY 4.0. EAEKO INDUSTRIAREN ALDEKO PLAN INTEGRALA 2017-2020

IX. legealdiko plangintza estrategikoan, Industrializazio Plan Estrategikoa egingo da: Basque Industry 4.0. Berrikuntzaren, fabrikazio adimenduneko lidergoaren eta industrian zerbitzu aurreratuak sartzearen aldeko apustua egin da, plan horren bitartez. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko jardun-lerro nagusietan jasota dagoen bezala, hauxe da helburua: **industria-sektoreak EAEko BEGdaren % 25 har dezan lortzea**. Jardute-lerro nagusiak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zituzten, 2017-2020 aldiko legealdirako.

Gaur egungo plana moldatuko da, erakundeen arteko jardute-plan zehatzak kontuan hartzeko, euskal sistema produktiboa dibertsifikatzeko, unibertsitate-prestakuntza bultzatzeko eta, zehazki, honako hauek sustatzeko: prestakuntza duala, etengabeko prestakuntza, atzerriko inbertsio-proiektuak bereganatzea eta industria-zorua prezio oso lehiakorretan eskaintzea.

Industrializazio Plana eta Eusko Jaurlaritzak martxan jarri dituen beste plan batzuk elkarrekin erlazionatuko dira. Beste plan horiek, besteak beste, honako hauek dira: Zentzuzko Espezializaziorako RIS3 Estrategia; 2020 aldiko Agenda Digitala; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana; eta Nazioartekotze Plana. Plan horiek guztiek Basque Industry 4.0 industria definitzeko, garatzeko eta munduan etorkizunerako industria gisa kokatzeko erronka partekatzen dute.



INDUSTRIALIZAZIO-PLANA, ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU-PROGRAMAN 2017-2020

HELBURUAK

- Balio erantsi gordinari dagokionez, industriaren pisua handitzea, 2020an euskal ekonomiaren % 25 har dezan. Horretarako, industria-politika egokia egin beharko da, enpresak estrategia aurreratuetara bideratzeko, hazkunde- eta nazioartekotze-prozesuetan laguntzeko eta aberastasuna, enplegua eta ongizatea sustatzeko funtsezko oinarritzat lehiakortasuna hartzeko.
- Basque Industry 4.0 estrategia indartzea, industria-lehiakortasunaren egoera berria gidatzeko; zehazki, «manufaktura aurreratua». Horretan, ohiko jarduera produktiboak teknologikoki aurreratuta dauden industria berriak bilakatuko dira, kalitatearen eta balio erantsiaren etengabeko apustua eginda.
- ETEei laguntzea, haien ezaugarrietara eta enpresa-ziklora egokituta dauden finantziario- eta berregitura-irtenbideen bitartez. Bideragarriak diren enpresei berriz egituratzen lagunduko zaie, eta enpresa-sareak osatzen duen multzo osoari ere laguntzea, bizirik iraun dezan.
- Enpresen sare berria garatzea aukera-sektore eta -nitxoetan, eta indar handiko industria-proiektuak atxikitzea, proiektuon indar berritzailearengatik, balio erantsiarengatik eta EAEn sortzen duten enpleguarengatik.
- Energiaren efizientzia, sare adimendunak, energia berriztagarrien ezarpena, energia biltegitratzeko irtenbideak eta abangoardiako industria energetikoa sustatuta, energia eraldatzeko prozesuan aurrera egitea.
- Baliabideen erabilera ezin hobea izatea, eta gas-erabilera trantsizio-energia gisa sustatzea, energia berriztagarri gehiago sortzeko eta kontsumitzeko prozesuan.
- Elikadura-kate osoa nazioarteko erreferente bilakatzea, produktuen eta gastronomiaren kalitate eta berrikuntzarengatik, aberastasuna eta enplegua sortzeko asmoz.
- EAE «lurralde ekintzaile» gisa finkatzea, Industria 4.0 ekimen berriak erakartzeko eta erreferente izateko.

JARDUTE-ILDO LEHENETSIK

■ Industria-garapena:

– ETEei eta zailtasunak dituzten enpresei laguntza ematea:

- ETEei laguntzeko politika garatzea, finantziazio-tresna berriak eta abal publikoak sustatuz, EAEko enpresa ertain eta txikien inbertsio produktiboko eta finantziazio-premiei erantzuten laguntzeko.
- Bideratu programa indartzea, zailtasunak dituzten enpresak berriz egituratzeko tresna gisa.
- Luzaro bitartez, partaidetza-maileguak indartzea, enpresak berriz egituratzeko behar diren inbertsioak egiteko eta zailtasunak dituzten enpresei banakako irtenbideak emateko, inplikatura dauden eragile guztiekin batera ekintza koordinatuak eginez.

– Enpresa-inbertsio produktiboa sustatzea:

- Gauzatu programa bultzatzea, enplegua sortzen duten ETEen inbertsioak finantzatzeko tresna gisa.
- «RENOVE Makineria» programa indartzea, ETEak iraultza digital berrira egokitzeko (Industria 4.0).
- Inbertsioak erakartzea: Invest in Euskadi eta Sprilur.

– Industria-proiektu estrategikoak bultzatzea:

- Manufaktura aurreratuko estrategia, zeharkakoa eta globala, abian jartzea. Enpresa-eraldaketa eta eredu produktibo berriak: Fabrikazio aurreratuko zentroak eta 4.0 ekimenak.
- Klusterren politika sendotzea eta fokalizatzea, gure enpresa-sarearekiko lotura eta Gobernuaren jarduera biderkatzen duen tresnatzat hartuta.
- Industriaren arloko trakzio-proiektuak sustatzea, baldin eta EAEko industria-sarea arrastatzeko gaitasuna badute (arrisku-kapitala, Ekarpn...).
- Funts publiko eta pribatua bultzatzea, indar teknologikoa eta nazioartekotzeko aukerak dituzten euskal enpresen hazkundera eta finkapena bermatzeko.
- Suspertze ekonomikoaren zerbitzura dauden enpresen azpiegiturak sustatzea (zoru industrialeko funtsa, teknologia-parkeak, industrialdeak...).
- Inbertsio estrategiko iraunkorrak (SOCADE, Euskadin kapitala garatzeko sozietatea).
- Ekintzailatza sustatzeko Erakundearen arteko Plana era koordinatuan garatuz, ekintzailatza sustatzea; eta barneko ekintzailatzaren aldeko apustu diferentziala egitea, enplegua finkatzeko eta sortzeko duen indarrarengatik.


■ **Energia-garapena. energia-politika lehiakorra eta jasangarria:**

- Euskadiko Estrategia Energetikoa 2030 garatzea, eta Europarekiko lotura energetikoa egitea, gas- eta argindar-hornidura egiteko.
- Energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko proiektuak sustatzeko diru-laguntzei lotutako programak garatzea (diru-laguntzak emateko programak, Energiaren Euskal Erakundea).
- Ibilgailu elektronikoa zabaltzen laguntzea, berriz kargatzeko bateriak eta azpiegiturak garatzeari garrantzi berezia emanda.
- Ministerioan aldarrikatzea industrian ezarritako gainkostu energetikoak ezaba ditzan, eta Espainiako estatuan arlo horretako legeak alda ditzan.
- Industriaren eta teknologiaren arloetako dibertsifikazio-proiektuak sustatzea: ekonomia berdeari, energia berriztagarriei (*off shore*) eta energia-sare adimendunei (Smart Grid) lotutako proiektuak sustatzeko programak garatzea; Biomasa proiektua bultzatzea, Energiaren Euskal Erakundearen eta HAZI erakundearen laguntzarekin batera; BIMEP finkatzea, teknologiaren eta industriaren arloetan itsas-energien garapena bultzatzeko proiektu estrategikotzat hartuta.


■ **Nekazaritzako elikagaien industria garatzea:**

- Zeharkako neurriak, elikaduraren eta gastronomiaren sektoreari zuzendutako balio-kate osoa indartzeko (Basque Culinary World Award, KIC Eit Food...)
- Eraberritzeko eta merkaturatzeko proiektuetarako inbertsioei laguntza ematea (Lehiatu Berria).
- Finantzaketa-laguntza ematea, nekazaritza-, arrantza- eta elikadura sektoreei, baita nekazaritzaren garapenari ere (Sendotu).

R.4. INDUSTRIALIZAZIOA: ekimen garrantzitsuak



Ekonomiaren eta industriaren arloko garapenaren lidergoa eta bultzada integrala



II.5

BALIABIDE EKONOMIKOAK

II.5. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Esparru-programaren **aurrekontu-zuzkidura zenbatetsia 8.800 milioi eurokoa da 2017-2020 aldirako**, eta honako osagai hauek ditu:

	Zenbatekoa
I. Enplegu-plana (*)	1.175 M €
II. Ekonomia suspertzeko planak	5.225 M €
Aurrekontu-baliabideak, guztira (I + II)	6.400 M €
Abalak	2.400 M €
Baliabideak, guztira	8.800 M €

(*) E.7–Enplegu publikoa, E.8–Enpleguaren kalitatea hobetzea eta E.9–Enpleguaren Euskal Sistema izeneko eremu operatiboekin lotutako baliabide ekonomikoak ez dira sartu, gehien bat, aurrekontu-eduki zuzenik gabeko ekintzak dituztelako; edota barneko kostuak dituztelako, batik bat.

ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU-PROGRAMA 2020

2017rako GUZTIRA ZENBATETSI DIREN BALIABIDEAK (milioi eurotan)

1. ARDATZA. ENPLEGUA

16 M €	E.1	ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA
21 M €	E.2	EKINTZAILETZA SUSTATZEA
24 M €	E.3	GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA
69 M €	E.4	ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA
73 M €	E.5	LANERATZEKO PIZGARRIAK
85 M €	E.6	RENOVE BIRGAITZE- PROGRAMAK

ENPLEGU-PLANA

288 M €

AURREKONTUA

ENPLEGUA 288 milioi €

SUSPERTZEA 1.269
milioi €

ABALAK
600 M €

GUZTIRA
2.157 M €

2. ARDATZA. SUSPERTZE EKONOMIKOA

R.1	INBERTSIOA	650 M €
R.2	BERRIKUNTZA	410 M €
R.3	NAZIOARTEKOTZEA	31 M €
R.4	INDUSTRIALIZAZIOA	178 M € 600 M € ABALAK

4i ESTRATEGIA

1.269 M €

600 M €
ABALAK



ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU-PROGRAMA 2020

GUZTIRA ZENBATETSI DIREN BALIABIDEAK 2017-2020 (milioi eurotan)

1. ARDATZA. ENPLEGUA

63 M €	E.1	ETEak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA
86 M €	E.2	EKINTZAILETZA SUSTATZEA
99 M €	E.3	GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA
282 M €	E.4	ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA
298 M €	E.5	LANERATZEKO PIZGARRIAK
347 M €	E.6	RENOVE BIRGAITZE- PROGRAMAK

ENPLEGU-PLANA

1.175 M €

AURREKONTUA
ENPLEGUA 1.175 M €
SUSPERTZEA 5.225 M €

ABALAK
2.400 M €

GUZTIRA
8.800 M €

2. ARDATZA. SUSPERTZE EKONOMIKOA

R.1	INBERTSIOA	2.610 M €
R.2	BERRIKUNTZA	1.765 M €
R.3	NAZIOARTEKOTZEA	125 M €
R.4	INDUSTRIALIZAZIOA	725 M € 2.400 M € ABALAK

4i ESTRATEGIA

5.225 M €

2.400 M €
ABALAK




II.6

AURREIKUSITAKO ERAGINA

II.6. AURREIKUSITAKO ERAGINA 2017-2020

ENPLEGUA HOBEA ETA ENPLEGU GEHIAGO sortzeko planteatu diren herri-helburuekin batera, programan aurreikusi da EAEn 45.000 lanpostu suspertzea; 100 ikerkuntza-proiektu berri finantzatzea; 6.000 enpresa berri laguntzea; 1.200 ETEri laguntzea, kanpoko merkatuetara zabal daitezen; eta 4.100 berrikuntza-prozesuri laguntzea.



Helburu global horiek, honela xehakatu dira:

45.000 lanpostu suspertuta

12.000 lanpostu, enpresa berriak sortzeagatik.

15.000 lanpostu, etxebizitzak eta tresneria publikoa birgaitzeko lanei lotuta.

18.000 pertsona, kontratuak egiteko pizgarrien bidez kontratatuturik.

6.000 enpresa berri lagunduta

5.000 mikroenpresa eta autonomo berri.

1.000 enpresa berritzaile berri.

100 ikerketa-proiektu estrategiko berri finantzatuta

100 proiektu, I+G arlokoak, enpresen lidergoarengatik sortuta eta euskal gaitasun zientifikoak eta teknologikoak baliatuta.

► **1.200** ETERi laguntza ematea, atzerriko merkatuetan sartzeko

200 ETERi laguntza ematea, nazioartekotzeko planak egiteko.

1.000 ETERi laguntza ematea, nazioartekotzeko proiektuak martxan jartzeko ekintzetarako.

► **1.100** ETERi laguntza ematea –batik bat, industriaren arlokoak–, modernizatzeko eta hedatzeko proiektuak egiteko

1.000 ETE, modernizazio teknologikorako proiektuekin eta prozesu produktiboak hobetzeko proiektuekin.

70 ETE, hazkunde- eta hedapen-proiektuekin.

30 ETERi laguntza ematea, zailtasunei aurre egin diezaieten.

4.100 berrikuntza-proiektu diruz laguntzea, ETEetan egiteko

600 ETE, kudeaketa aurreratuko, berrikuntzarako eta lehiakortasunerako proiektuekin.

3.500 ETE, I+G arloko proiektuekin eta produktu berriak garatzeko proiektuekin.

Gazteen enpleguari dagokionez, 20.000 gazteri lan-aukera eskaintzeko helburua ezarrita dago:

20.000
gaztek
lan-aukera
bat
edukitzea

- **3.000** gazte kontratatuta, haien ikasketekin bat datozen lanpostuetan, lehen lan-aukera emanda (Lehen Aukera).
- **5.000** gaztek hezkuntza-arlotik lan-arlora aldatzeko esperientzia praktikoa izatea.
- **3.500** gazte ekintzaile berri.
- **2.500** gazte, tokiko eta eskualdeko planen bidez kontrataturik.
- **3.200** gazte, euskal administrazio publikoko pertsona erretiratuen lanpostuak ordezkatzuz.
- **400** gazte, sektore pribatuko errelebo-kontratuen onuradunak.
- Atzerrian prestakuntza eta esperientzia eskuratu dituzten **200** gazteri itzultzen laguntzea
- **1.800** gazte, enpresa-esperientzia praktikoa bereganatzeko beken onuradunak.
- **400** pertsona, aukera-arlo zehatzetan sartzeko eta garapen profesionala egiteko laguntza-programen onuradunak.

II.7

KONPROMISOA LABUR AZALTZEKO HAMAR FAKTORE GILTZARRI

KONPROMISOA LABUR AZALTZEKO HAMAR FAKTORE GILTZARRI

Honako jardute-faktore giltzarri hauek laburbiltzen dute esparru-programa honetan azaldu dugun enpleguarekiko konpromisoa:

1	Enplegua eta suspertze ekonomikoa sustatzeko estrategia integratuari 8.800 milioi euroko zuzkidura esleitu zaio, langabezia % 10etik behera murrizten laguntzeko.
2	Enplegu-plan espezifikoa , prestakuntza, ekintzailletza eta laneratzea sustatzeko.
3	Gazteen enplegua sustatzeko lerro espezifikoa martxan jartzea, 20.000 gazteri lan-aukera bat eskaini ahal izateko.
4	I+G+b arloko aurrekontua urtean % 5 handitzea.
5	EAEko enpresa txiki eta ertainei nazioartekotzen laguntza integrala ematea.
6	«Zentzuzko espezializaziorako RIS3 estrategia» garatzea , Euskadi berrikuntza handiko eskualde gisa Europan kokatzeko.
7	4. iraultza industrialaren aldeko apustua egitea, Euskadiko garapen ekonomikoaren motortzat hartuta.
8	EAEko ETEen digitalizazioa indartzea, Euskadiko Agenda digitaleko estrategia garatuz, 1.500 enpresa modernizatzeko eta digitalizatzeko.
9	Prestakuntza dualaren aldeko apustua egitea, eta lantokietako lanbide-heziketa sustatzea.
10	Enplegu publikoa berritzea eta finkatzea , aurreikusten diren erretiroak ondo kudeatuta.

II.8

GOBERNAMENDU-eredua

II.8. GOBERNAMENDU-EREDUA

Esparru-programaren gobernamendu-eredua osagai erabakigarria da, programa ondo ezartzeko, haren jarraipena egiteko eta ondo ebaluatzeko berme gisa.

Hori horrela, Esparru Programaren Gobernamenduari dagokionez, Jarraipen Batzordea osatzea aurreikusi da, planaren koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna nagusi moduan jardun dezan. Batzorde horrek zainduko ditu planaren ezarpena, jarraipen etengabea eta, behin planaren epea amaituta, azken ebaluazioa edo balantze globala.

ESPARRU-PROGRAMAREN JARRAIPENA EGITEKO BATZORDEA	
EGINKIZUNA	Barneko jarraipena eta koordinazioa.
OSAKETA	Eusko Jaurlaritzaren sailak eta erakundeak, baldin eta esparru-programan zehaztutako plan estrategikoekin lotura badute.
EGINKIZUNAK	Esparru-programaren monitorizazioa, jarraipena, ebaluazioa eta kontuak jendaurrean ematea.
ALDIZKAKOTASUNA	Lau hilez behingo barne-jarraipena.
EGIN BEHAR DIREN TXOSTENAK	■ Ezarritako helburuak bete diren azaltzeko urteko txostena (hurrengo urteko lehen lauhilekoan argitaratu beharko dira). ■ Esparru-programa betetzen amaitzeari buruzko txosten globala.

JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-ADIERAZLEEN SISTEMA

2017-2020 Enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren aldeko esparru-programan ezarrita dago programaren aplikazioari buruzko monitorizazio eta jarraipen sistematikoa, helburuen bilakaera, emaitzak eta aldi horretan erdietsitako lorpen nagusiak ezagutzeko.

Monitorizazio eta jarraipen hori jarraipen- eta ebaluazio-adierazleen bidez egiten da. Adierazleen bidez, esparru-programa monitorizatu eta aztertzen da. Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleen sisteman hiru adierazle mota bildu dira:

- **TESTUINGURU-ADIERAZLEAK.** Testuinguru-adierazle orokorrak dira. Adierazle esanguratsuenen jarraipena egiteko aukera ematen dute, Euskadin enplegua eta ekonomia suspertu diren kontrolatzeko. Informazio-iturri ofizialetatik etorritako datuak erabiliko dira, adierazle horiek zenbatzeko.
- **ERAGINAREN ADIERAZLEAK.** Esparru-programan sei adierazle jaso dira, esparru-programak EAEko ekonomian izan duen eragina adierazteko.
- **EMAITZEN ADIERAZLEAK.** 20 adierazle bildu dira, eta esparru-programan zehaztu diren eremu estrategikoetan garatu diren jarduketan emaitzak monitorizatzeko erabiliko dira (enpleguari, inbertsioari, berrikuntzari, nazioartekotzekoari eta industrializazioari lotutako ardatz estrategikoei buruzkoak). 20 adierazle horietan bildu dira eragina ebaluatzeko sei adierazle.

Adierazle-sistema hori definitzeko, hainbat irizpide hartu dira kontuan: garrantzia, neurketa egiteko behar diren datuak eskuratzeko aukera eta zer balio gehitzen dien esparru-programaren aldizkako jarraipenari eta programaren balantze osoari.

Oro har, adierazleak urtero neurtuko dira, eta aurrerapenari buruzko urteko txostenean bilduko dira.

BIZTANLERIAREN ADIERAZLE OROKORRAK

ADIERAZLEA	ITURRIA
HAZKUNDE EKONOMIKOA ETA PRODUKTIBITATEA	
Barne-produktu gordina, guztira (BPGd)	EUSTAT
Barne-produktu gordinak EAEn izan duen bilakaera (BPGd)	EUSTAT
Barne-produktu gordina (BPGd) EAEn, pertsona bakoitzeko	EUSTAT
Produktibitatea, landun bakoitzeko	EUSTAT
Enpresa-inbertsioa, BPGdaren arabera	EUSTAT
Eratutako merkataritza-enpresa berriak	EIN
ENPLEGUA	
Landunen kopurua (pertsonak)	EUSTAT
Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua	GIZARTE-SEGURANTZA
Langabezia-tasa (% , BAI)	EUSTAT
Euskadi-Lanbiden erregistratu den langabezia	EUSTAT
Enplegu-tasa (20-64 urte) (%)	EUSTAT
Gazte landunen tasa	EUROSTAT
Gazte langabeen tasa	EUSTAT

ADIERAZLEA	ITURRIA
BERRIKUNTZA	
BPGdaren gaineko I+Gko gastua	EUSTAT
Enpresetatik eratorritako I+Gko gastuaren %, I+Gko gastu osoarekin erkatuta	EUSTAT
10 edo langile gehiago dituzten establezimendu berritzaileen %	EUSTAT
I+G alorrean jarduten duten pertsonen kopurua (milako pertsonatan)	EUSTAT
Ekoizpen zientifikoa, milioi biztanleko	EUSTAT
I+G+b arloko programen bidez lortutako atzerriko funtsen bolumena (milioi eurotan)	EUSTAT
EPO patenteen eskaera (European Patent Office)	EUROPEAN PATENT OFFICE
NAZIOARTEKOTZEA	
Esportazioen urteko bolumena (milioi eurotan)	ICEX
Inportazioen urteko bolumena (mila milioi eurotan)	ICEX
Merkataritzako balantza (milioi eurotan)	ICEX
Enpresa esportatzaileen kopurua	ICEX
Ohiko esportazioak egiten dituzten enpresen kopurua	ICEX
INDUSTRIALIZAZIOA (GARAPEN INDUSTRIALA ETA ENERGETIKOA)	
Sektore industrialeko landunak (milaka)	EUSTAT
Industriak BEGdan hartzen duen pisua (%)	EUSTAT
Industria-produkzioaren indizea	EUSTAT
10 edo langile gehiago dituzten industria-establezimenduen artean, establezimendu berritzaileen %	EUSTAT

JARDUERAREN, EMAITZEN ETA ERAGINAREN ADIERAZLEAK

ENPLEGUA	1. Enplegu-planaren aurrekontua (milioi eurotan)
	2. Piztu diren lanpostuen kopurua (*)
	3. Finkatutako enpleguen kopurua
	4. Enplegu-aukerak handitu dituzten pertsonen kopurua
	5. Lagundutako mikroenpresa berrien kopurua (*)
BERRIKUNTZA	6. Berrikuntzarako aurrekontua (milioi eurotan)
	7. Lagundu diren ikerketa-proiektu estrategikoen kopurua (*)
	8. Lagundu diren ETEen proiektu berritzaileen kopurua (*)
	9. Berrikuntzari laguntzeko programek eragindako inbertsio pribatua (milioi eurotan)
NAZIOARTEKOTZEA	10. Nazioartekotzera zuzendutako aurrekontua (milioi eurotan)
	11. Kanpo-merkatuetara joateko laguntza eman zaien ETEen kopurua (*)
	12. Nazioartekotzerako giza kapitala sustatzeko programen onuradun izan diren pertsonen kopurua
	13. Kanpo-ezarpen produktibo eta komertzialen kopurua
	14. Nazioartekotzeari laguntzeko programek eragindako inbertsio pribatua (milioi eurotan)
INDUSTRIALIZAZIOA	15. Industria-garapenerako aurrekontua (milioi eurotan)
	16. Modernizatzeko eta hedatzeko proiektuetan, laguntza jaso duten ETEen kopurua (batez ere, industriaren arloko ETEena) (*)
	17. Industrializazioari laguntzeko programek eragindako inbertsio pribatua (milioi eurotan)
INBERTSIOA	18. Inbertsio publikoko aurrekontua (milioi eurotan)
	19. Amaituta edo eraikitzen ari diren azpiegitura nagusiak
	20. Inbertsio publikoen eraginez sortutako enplegu zuzena (lanaldi osoko lanpostu baliokideak)

(*) EAEko ekonomian jasotako eraginaren adierazleak.

EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO



ENPLEGUAREN ETA
SUSPERTZE EKONOMIKOAREN
ALDEKO ESPARRU PROGRAMA 2017-2020

ERANSKINAK



A.1

Erreferentzia dokumentuak

1. ERANSKINA. Erreferentzia dokumentuak

- (*) EAJ eta PSE-EE-PSOE alderdien arteko akordioa, 2016-11-22koa.
- XI. legealdiko gobernu-programa.
- Enpleguko Euskal Estrategia 2020.
- Enplegu Plana 2014-2016.
- Ekonomia eta enplegua suspertzeko esparru-programa 2014-2016.
- Lehendakariaren konpromiso publikoak.
- «Lan gehiago eta hobe».
- «Gazteen enplegua sustatzea».
- «Inbertsiorako 40 proiektu estrategiko – XI. Legealdia».
- EUSKADI 2020 ZTBP. Zentzuzko Espezializazio-estrategia (RIS3).
- 2014-2016 Industrializaziorako Plan Estrategikoa.
- Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country estrategia:
 - 2014-2016 Kanpoko Ekintza Plana.
 - Enpresak Nazioartekotzeko Plana 2014-2016.
- Jarduera ekintzailea sustatzeko erakundeen arteko plana.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



**ENPLEGUAREN ETA
SUSPERTZE EKONOMIKOAREN
ALDEKO ESPARRU PROGRAMA 2017-2020**